

## Kultura

Eneko Sagardoy aktore durangarra protagonista duen 'Aundiya' filma grabatzen ari dira. > 11



## JAIAK!

**TRAÑA  
MATIENA  
ABADIÑO**



*“Welcome esaten diegu,  
baina errealitatea  
bestelakoa da”*

Milaka errefuxiatu heltzen ari dira Chiosera (Grezia), Europako ametsari heldu nahian. Erreskate lanetan dabil han Juan Atxutegi zornotzarra, Salvamento Maritimo Humanitario GKEagaz. > 10

## Euskotrenek Berrizko eta Zaldibarko tarifa berriak baliozabetuko ditu

Hainbat protesta eta kezaren ondoren, apirilaren 4an Euskotrenek Berrizko eta Zaldibarko erabiltzaileentzat ezarritako tarifa berriak bertan behera uztea erabaki duela jakitera eman dute. Bi herri hauek Durangaldeko tarifakazio zonaldeetik kanpo uzteak tarifen igoera eragin du Durangaldeko herrietara bidaiatuz gero. > 8

*“Fisikoa bezain  
garrantzitsuak dira  
entrenamendu psikikoa  
eta animikoa”*

Lain García Calvo | Coacha > 15



2016 bidea  
Durangaldera iritsi da!  
Ibilian egiten da kultura

Maiatzak 01

**ETAPA 6, DURANGO - OTXANDIO**

Urkiola gaineko paqaaren ondoan



Martxoak 27 > Urriak 30

32 mendi irteera gidatu  
100 ekintza kultural baino  
gehiagorekin.

ETAPA 6, Zailtasuna: Ertaina  
Luizera: 17,2 km | \*Prezioa: 7 €  
Asanblamendu gaitzabara eta laguntza  
eragileak ditu.

\* Prezioa: 7€ (7€-ko 2016 bidea, 2016ko urria)

Eman izena: [2016bidea.dss2016.eu](http://2016bidea.dss2016.eu)

Lehen erregistratze eguna: Apirilak 29, 2016

### Durango > 2

Gorka Fraile preso gaixoa askatzeko eskatu du udalak

### Durango > 3

Mercadona eta Lidlen planak oztupoa aurkitu du Durangon

### Atxondo > 6

AHTaren desjabetzeen kontrako protesta egin dute

### Elorrio > 4

Pullako planaren errekurtsioan amore eman du udalak

## Herririk herri

# Gorka Fraile preso gaixoa askatzeko eskatu du udalak

Fraileren aldeko plataformaren mozioa EAJk, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak babestu dute

**DURANGO** Markel Onaindia Gorka Fraile preso durangarra (ETAko kide izateagatik 18 urte daramatza kartzelan) minbizia antzeman zioten duela urtebete inguru, eta ebakuntza egin zioten horren ostean. Geroztik ez diote bestelako probarik egin, berak publikoki salatu duenez. Bere aldeko plataforma sortu zen otsailean, eta aste honetako osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuten. EAJk, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak babestuta, mozioaren bidez Fraile askatzea eskatu dute, bere gaixotasunari etxean aurre egin diezaion.

“Egoera urgentea” dela ohar-tarazi zuen martitzenean Ane Ortuondo plataformako kideak, osoko bilkuraren amaieran. “Horrelako kasuetan araudiak ahalbideratzen duen bezala, Gorkak minbiziari aurre egite-

ko daukan bide bakarra etxera ekartzea da”.

Bihar, Fraileren aldeko kalejira egingo dute, 18:30ean, Landakoko anbulategian hasita.

### Giza eskubideak

Goiztidi Diazek (EAJ) mozioaren aldeko jarrera arrazoitu zuen: “EAJ beti egon da giza eskubideen alde, pertsona guztientzat. Atzo, gaur eta bihar”. Dani Maeztuk (EH Bildu) Espainiako kartzela politika salatu zuen. Durangoko presoaren senideek kartzelatan bisitak egiteko, astebururo, guztira 18.138 kilometro egin behar dituztela gogoratu zuen. ETAK jarduera armatua 2012an amaitu arren ere, “mendeku politika” ezartzen dela kritikatu, eta preso gaixoen kasuan “pauso bat gogorragoa” dela uste du. Julián Ríosek (Herriaren



Goian, Ane Ortuondo, osoko bilkuran. Behean, udaletxe kanpoan egindako protesta.

Eskubidea) “bakearen eta giza eskubideen aldeko konpromisoa” berretsi zuen.

### Mina onartzea

PSE-EEK mozio alternatibo bat aurkeztu zuen. Legeari jarraiki, gaixorik dauden presoek baldintzapeko askatasuna ematearen

alde agertu dira sozialistak, eta baita presoak gradualki hurbiltzearen alde ere. Baina, ETari desarma eta desagertzea exijitu dizkio, eta presoek mina onartzea ere bai. Pilar Ríos: “Kartzela politika aldatu behar da, baina presoek eragindako kaltea onartu behar dute”.

Fran Garatek (PP) adierazi zuen gaiaren eskumena espetxeetako instituzioena dela, eta horregatik, ez zuen moziorik babestu. “Espainia zuzenbide estatua da. Eskubideak daude, baina zigorrak ere bai. Preso gaixo larriek 3. gradua lor dezakete arrazoi humanitarioengatik”.

# Tabirako igerilekuetako zelaia handituko dute 59.000 eurogaz

Iaz edukiera bete egin zen egun batzuetan, eta jendea sartu ezinik geratu zen

### DURANGO M.O.

Tabirako kanpoko igerilekuetako zelaia handitzea erabaki du udalak, eta obra hori burutzeko 59.000 euro erabiliko ditu. Iazko udan, edukiera bete egin zen egun batzuetan, eta jendea sartu ezinik edo ilaran geratu zen. Durango Kirolak erakunde autonomoak egindako proposamena osoko bilkuran landu zuten, eta EAJ, PSE-EE eta PPren babesa

jaso zuen, ez ordea EH Bildu eta Herriaren Eskubidearena.

Goiztidi Diazek (EAJ) azaldu du hile bi falta direla uda sasoirako, eta neurria orain hartzea beharrezkoa dela. “Durangok bere instalazioak ondo egotea merezi du”. Pilar Ríosen arabera, “jende askok erabiltzen ditu igerilekuak”, eta beharrezko neurria da. Fran Garatek ere arrazoi bera ikusten du.

Iker Urkizaren (EHB) iritziz, beste lehentasun batzuk daude: “59.000 euro gastatuko dira, birritan bete zelako. Akaso ez da hain beharrezkoa”. Gainera, udala plan orokorra lantzen hasiko denez, horri itxarotea eskatu du. Julia Pererak (HE) zalantza agertu zuen, beharrezko ikusi arren: “Zelaia handituko da, baina igerilekuak eta aldagelak ez. Zalantza sortzen digu”.

# Etxebizitza eskubidea aldarrikatuko dute

Manifestazioa deitu dute apirilaren 30erako

### DURANGO M.O.

Apirilaren 30ean etxebizitza eskubidearen aldeko manifestazioa egingo dute, Durangaldeko *Zabalduko ditugu!* gazte dinamikako kideek deituta. 19:30erako iragarri dute mobilizazioaren hasiera, Andra Maritik.

Azaldu dute gazteek “ia ezinezkoa” dutela gurasoen etxetik irten eta norbere kabuz bizitzea, eta “gehienak langabezian edo lan prekarioekin” egonda,

ez direla ezarritako alokairuak ordaintzera heltzen. Horren erakusgarri lez aipatu dute, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan 30 urtekoa dela emantzipatzeko batez besteko adina.

Durangon 1.576 etxe huts daudela salatu dute, eta udalaren alokairu programak “ez du arazoa konpontzen” euren ustez, baldintza lez ipintzen den gutxieneko errentara ez direlako heltzen.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2016ko apirilaren 22a  
14. urtea - 629. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrindia.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza eta Nagore  
Txintxurreta Isasi.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi eta Paul  
Bustindui Revuelta.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

### Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



# Mercadona eta Lidl en planak oztopo bat topatu du Durangon

Lurren birkalifikazioa “ezin dela aldebakarrekoa” izan uste dute Durangon

**DURANGO** M. Onandia  
Abadiñoko Udalak Murueta auzoan Mercadona eta Lidl su-

permerkatuak zabaltzeko plana martxan dauka, baina ez da eztabaidatik libratu. Gainera,

oztopo bat topatu du Durangon. Izan ere, udalbatzak uste du proiektuak eragin zuzena dau-



Martitzeneko osoko bilkuran eduki zuten supermerkatuen inguruko eztabaida.

## Krisi ekologikoaz jardunaldia egingo dute Elkartegian

**DURANGO** M.O.  
Elizbarrutiko Teologia eta Pastoralta Institutuak antolatuta, krisi ekologikoaren inguruko gizarte jardunaldia egingo dute eguaztenean, hilaren 27an, Landako Elkartegian. 19:00etan hasiko da hausnarketa helburu nagusi duen jardunaldia, eta *Krisi ekologikotik osoko ekologiara* izenburupean egin dute deialdia. Ekitaldi guztia euskaraz izango dela adierazi dute antolatzaileek.

Mahai-inguru estiloan burutuko dute eguazteneko berbaldea, gaian aditu diren hiru lagunentzako. Elisa Sainz de Murietak (Klima aldaketaren arloko Euskadiko zentroko ikerlarria), Ana Sofia Telletxeak (Caritaseko Ezagutza saileko arduraduna), eta Aitor Urrestik (Energia berriztagarrien EHUko irakaslea) berba egingo dute.

Euren moderatzaile lanetan Jon Landa ibiliko da, EHUko Zuzenbide Penaleko katedraduna.

Mahai-inguru estiloan burutuko dute berbaldea, gaian aditu diren hiru lagunentzako

## Udaberriko Gazte Eguna ospatuko dute bihar, goizetik hasita

**DURANGO** M.O.  
Orain arte Durangoko jaietan ospatu izan da Gazte Eguna, baina badirudi, hemendik aurrera, urte berean birritan egongo dela hitzordua. Izan ere, gazte mugimenduak Udaberriko Eguna antolatu du biharko. Goizetik iluntzera arte, ekitaldi zuzenak egitaraua eskainiko dute.

12:00etan Sorginola gaztetxean elkartuko dira gazteak, tailerrak eta jolasak burutzeko

12:00etan Tabirako Sorginola gaztetxean elkartuko dira gazteak, tailerrak eta jolasak burutzeko. Dantza, sukaldaritza eta eskulan tailerrak garatuko dituzte, eta arrautza jaurtiketaren jolasean ere ibiliko dira.

**Bazkaria, Andra Marian**  
14:30ean, Andra Marian bazkalduko dute, eta arratsaldea bertan pasatuko dute. Gero, 19:00etarako, *karropoteoa* deituko dute.

Biharko Gazte Egunerako egitaraua auzolanean sortu dute, hainbat gazte egindako batzarretan.

kala Durangon ere, eta horregatik, Muruetan lurren birkalifikazioan egin gura duten aldeketa “ezin dela aldebakarrekoa izan” ohartarazi dio Abadiñoko Udalarari. EH Bilduk aurkeztutako mozioa beste alderdi guztiek babestu zuten, PPK izan ezik.

Dani Maezturen (EH Bildu) ustez, Durangok, Iurretak eta Abadiñok “errealitate fisiko bat” osatzen dute, eta azpiegiturak ikuspegi horregaz egin behar dira: “Hirigintza ez da mapen gainean marrazkiak egitea”. Gainera, periferiako supermerkatuen ereduak eta komertzio lokalenak “talka” egin dutela dio Maeztuk. “Proiektua kaltegarria da Durangoko ehun sozioekonomikorako; %80 zerbizuetakoa da, hurreko merkataritzari lotutakoa”.

Proiektuaren eskumena Abadiñoko delako onartu arren, bideak aztertze prest dago EAJ. Goiztidi Diaz: “Gure eskumenean barnean egiteko aukera duguna egiteko prest gaude”. Julián Ríosek adierazi du egitasmoak

“enplegu galera” ekarriko lukeela Durangoko komertzioan: “Zer eredu nahi dugu? Komertzioak ixtea? Kanean bizirik ez egotea?”. Pilar Ríosen (PSE-EE) iritziz, “Durango erreferente da komertzioan”, eta hori babestu behar dela dio.

Fran Garate (PP) soilik agertu da aurka. “Durangon eragin-ego duela, ez dut zalantzarik. Baina ez da gure eskumena”.

**Navarrogaz batzartzea**  
PSE-EEren eskari bat gehituta, Abadiñoko Udalgaz ahalik eta arinen batzartzea onartu dute. Bestalde, Durangoko batzordera Dendak Bai eta San Faustoko auzotarrak gonbidatuko dituzte.

**Abadiñoko EAJren oharra**  
Bestalde, Abadiñoko EAJk esan du “herriko merkataritza sustatzeko” asmoz lan egin dutela, “firma berriak” instalatzeaz aparte. “Denda txiki eta handiek elkarrekin bizi behar dute, bakoitza bere negozio ereduarekin”.



## “Biomedikako graduak medikuntza eta ingeniartzako arloak uztartzen ditu”

**Cristina Romo Valera** durangarra Ingeniaritza Biomedikoa graduako 2. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoan

**Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Biomedikoa gradua, eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

Ingeniaritza Biomedikoa gradua aukeratu nuen titulu erakargarria eta interesgarria iruditu zitzaidalako. Medikuntza zein ingeniartzako arlo ezberdinak uztartzen dituen gradua da, ingeniartzako esparruan lortu daitezkeen eza-gutzak, osasun esparruan sortzen diren arazoei aurre egiteko aplikatzen diren teknologia asko erakartzen dituen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen ikasitako praktikan nola aplikatu daitezkeen ikusteko aukera ematen duelako.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Bi urte daramatzat gradu hau ikasten eta, orain arte, esperientzia oso positiboa izan da, irakasle eta ikaskideekin harremana oso ona izan da hasieratik. Gero eta gehiago gustatzen zait ikasten ari naizena, gainera biomedikuntza arloko

ikerketak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira, gauzak berriak ateratzen ari dira etengabe.

**Nola definituko zenuke ikasteko metodologia?**

Ikasteko metodologia praktikotasunean oinarritzen da. Gehienbat proiektu bidezko ikaskuntza oinarritzen da, 1. mailatik, kurso bakoitzeko bi proiektu egiten dira taldeka, seihileko bakoitzean jorratutako ikasgaiaren erlazioa dutenak. Honek, ikasitako esparru profesionalean ze aplikazio duen ikusteaz gainera, beste arlo batzuk lantzeko aukera ematen du.

**Azaldu egindako proiektuaren bat**

2. mailako lehen seihilekoan egindako proiektua aldakako inplante baten ebakuntza baterako irtenbiderik egokiena garatzea izan da. Aurretik inplante baten higaduraren ondorioz, bigarren operazio bati aurre egin behar



dion gaixo bati aplikatu beharreko konponbidea bilatzea izan da helburu nagusia. Diseinurik egokiena garatzeko, aldakako artikulazioak jasaten dituen esfortzu eta talkak kontuan eduki behar izan ditugu, inguruko gunearen azterketa biologiko zein mekanikoa eginez. Hau kontuan edukita, beharrezko material, estaldura eta esterilizazio metodoak ezarri genituen. Azkenik, egindako diseinuaren fabrikazio prozesuak definitu eta inplante erreal bat fabrikatu genuen, 3D inprimatze teknika erabiliz.

**Zer moduz moldatzen zarete talde lanean?**

Orain arte oso ondo, ez dugu arazorik izan. Nire iritziz, beti dago zerbait ikaskideengandik ikasteko, bakarkako lana baino aberasgarriagoa dela uste dut.

# Pullako planaren errekurtsioan amore eman du udalak, eta planaren geroa airean dago

Planari txosten tekniko batzuk falta zitzaizkiola agerian geratu zen; orain, epaitegiak izango du berba



Osoko bilkuran eztabaida eduki zuten Buruagak (EH Bildu) eta Mujikak (EAJ).

**ELORRIO** Markel Onaindia Auzo Koordinadorak Pulla-Azkarretako plan partzialari errekurtsioa ipini zion, eta agerian

geratu zen planari txosten tekniko batzuk falta zitzaizkiola. Egoera horretan, udalak auzian aurrera egin ala ez eraba-

ki behar zuen, eta, azkenean, amore ematea erabaki du. Asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten EH Bilduk eta Herriaren

Eskubideak, EAJ aurka zela. Orain, epaitegiak du berba; baina, itxura guztien arabera, auzia orain edo geroago amaituta ere, plana berriro landu beharko du udalak eta Sprilurrek (industrialdearen sustatzailea). Beraz, planaren geroa airean dago.

Idoia Buruaga alkatearen arabera, “udaleko aholkularitza juridikoak ikusi du koordinadoraren erreklamazio guztiek badutela oinarria”. URA eta AENA agentzien txostenak eta ingurumenak izango duen eraginaren ikerketa falta dira, eta koordinadorak esan du kopuru urbanistikoak ere egokitu behar direla. Buruaga: “EAJk aurreko legealdian hanka-sartze hori egin ez balu, ez ginen hemen egongo”.

Joseba Mujika (EAJ) ez dago ados erabakiagaz. Bere arabera, ingurumen eraginaren azterketa ez zela beharrezkoa adierazi zuen Eusko Jaurlaritzak, eta kopuru urbanistikoaren gaian arrazoia emateak planean eragin dezakeela kritikatu du. Horrela, URA eta AENAREN txostenak eskatu, eta auziagaz aurrera egitea proposatu du.

Buruagaren ikuspegitik, ostera, “fase honetan ezin da akats hori konpondu”.

## Eta orain zer?

Udalak ez du oraingoz planaren inguruan beste erabakirik hartu, baina, Buruagaren esanetan, “gaiak sortzen duen ezinegona ikusita”, mahai gainera ekartzeko prest daude. Juan Pedro Gallastegiren (HE) nahia erabakiagaz “espekulazio sasoiaren amaiera” ekartzea da. “Proiektuaren atzean eraikitzaileen interesa zegoen, eta ez lanpostuak sortzea”. Koordinadorako Julen Fernandezek ere Pullako proiektua ez dela beharrezkoa aldarrikatu du.

## Autokarabana guneko obrak maiatzean hasi gura ditu udalak

Udara bitartean hitzartutako 18 neurriak martxan daudela esan du udalak

**ELORRIO** M.O.

Udarako, errealitate bihurtuko da Durangaldeko lehenengo autokarabana gunea. Elorrion egongo da, San Jose kalean. Udala egitasmoa garatzen dabil, eta aste honetan bertan obraren esleipena egingo du. Horrela, lanak maiatzean hastea aurreikusi dute, eta gunea uztaileko prest egotea espero dute.

Legealdi honetarako 100 konpromiso hartu ditu udalak, eta udara bitartean 18 garatuko ditu. Hain zuzen ere, neurri horietako bat da autokarabana guneara. Martitzenean prentsaurrekoa eskaini zuten Idoia Buruaga alkateak eta Dani Palacios zinegotziak, 18 egitasmoak martxan daudela azaldu

eta balantze bat egiteko. Bestelako proiektuen artean, Berrio-Otxoa kaleko sarbidea kontrolatzeko plana adjudikatu dute, eta

udaletxe atzeko berdegunea zelan atondu erabakitzeko, udan herritarrentzako ate irekiak egingo dituztela iragarri dute.



San Jose kalean ipiniko dute autokarabanentzako gunea.

## “Galdeketa egin gura dugula esateko garaia da”

Bihar eguerdian bozketa bat garatuko dute plazan

**ELORRIO** M.O.

Gure Esku Dago mugimenduak hitzordu berri bat ipini du biharko, Elorrion. “Herri galdeketa egin gura dugula esateko

Boto-paperak etxeetara bidali dituzte, eta plazan bertan ere eskuratu ahalko dira

garaia heldu da”, adierazi dute antolatzaileek. 2017an, etorkizun politikoaren inguruko erabakitzeko eskubidea praktika eramatea aurreikusi dute mugimendukoek, baina, ho-

rretarako, herritarren babesa lortu gura dute. Ondorioz, bihar eguerdian bozketa bat garatuko dute plazan, 12:30etik aurrera. Boto-paperak etxeetara bidali dituzte, eta plazan bertan ere eskuratu ahalko dira. Hauxe da erantzun beharreko galdera: *2017an Elorrion herri galdeketa egitea nahi duzu?*

Antolatzaileen ustez, erabakitzeko eskubidea “bizikidetzaren oinarritzko osagaia” da.

## Urte bi lanean

Elorrioko Gure Esku Dagok urte biko dinamika garatu du jada, eta martxoaren 11n, esaterako, ehunka lagunek krisieluak aireratu zituzten *Argitu erabakia* izeneko ekitaldian.

APIRILEKO SARIAK

**Anbotoren lagunak**

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)  
lagunak@anboto.org  
Tel.: 946 816 558

  
**SAN AGUSTIN. SARRERAK**  
“Zer duzu Amy?” antzezlanerako 2 sarrera. Maiatzak 5, 20:00tan.

  
**URBASA ABENTURA. MULTIABENTURA**  
Multiabentura Ibilbidea Familian, 4 pertsonentzako.

  
**SALTSAN KATERIN. MENUA**  
Bi lagunendako aste bitarteko menua.

  
**SAN AGUSTIN. SARRERAK**  
Umeentzako “Ensueños” ikuskizunerako 2 sarrera. Maiatzak 15, 18:00tan.

  
**HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA CDa**  
Pedro Iturria Sarasibaren “Euskarari gorazarrea” liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Amalur” CDa.

## ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

# ERROTARITXUENA DURANGO

SUKIA ERAIKUNTZAK Durangoko auzo berria arrakatatsu bukatzen du.

ESKERRAK bizilagun guztiei errealitate bihurtu den amets honen parte izateagatik.




85 etxebizitza Libre

**%100a salduta**



58 babes ofizialeko etxebizitza



89 etxebizitza Libre

Baina hau ez da hemen amaitzen, LANEAN JARRAITZEN dugu Durangon proiektu berriekin. Eguneratuta egon nahi baduzu, kontatu zure beharrak eta informaturik mantenduko zaitugu.

946 46 20 41  
www.sukia.com



**sukia** Zure etxean zaude  
Estás en tu casa

# Euskotrenek Zaldibarko eta Berrizko tarifa berriak baliogabetuko ditu

Tarifikazio berriagaz, bi herriak Durangaldeko zonaldekan kanpo utzi zituen



Berriztik Durangorako joan-etorria ordaindu barik egin zuten.

## DURANGALDEA J.D./J.G.

Euskotrenek berriro ere 4. zonaldean sailkatu ditu Berriz eta Zaldibar. Eguaztenean, Berrizko eta Zaldibarko alkateak Bizkaiko Garraio Partzuergoagaz batzartu ziren. Bertan, herri bietako kasuaren berri eman zieten, eta "Garraio Partzuergoak udalerrri hauen kasua aztertze konpromisoa hartu du", Berrizko udaleko prentsa ohar batek jasotzen duenez. Gertakizun honen aurrean, eta hitzordu bat

eskatzeko asmoagaz, Berrizko alkateak Euskotreneko zuzendaritzagaz berba egin zuen, atzo, telefonoz. Partzuergoak tarifa integrazioa aztertzen duen bitartean, Berriz eta Zaldibar 4. zonaldean mantentzeko eskatu zitoten, erabiltzaileei tarifa igoraririk aplikatu gabe. Zentzu honetan, eta egoera argitu ostean, Euskotrenek Berriz eta Zaldibar 4. zonaldean mantentzea erabaki zuen, aurreko tarifa ezarriz. Arantza Baigorri Zaldibarko

alkateak azaldu duenez, aurreko tarifakazio sistemara noiz eta zelan itzuliko diren hitz egingo dute orain Euskotrenezag.

## Protesta ugari

Zaldibar eta Berriz tarifakazio sistema berrian Durangaldeko zonaldekan ateratzeak prezio igoera eragin du bi herri horietako erabiltzaileentzat. Gauzak horrela, hainbat kexa helarazi dizkiote Euskotreni. Era berean, bi herri horietan mobilizazioak antolatu dituzte azken asteetan, elkarretaratzeak eta Berriztik Durangorako protesta bidaia, esaterako.

Durangoko Udalak, martitzeneko bilkuran, Berriz eta Zaldibar Durangaldeko gainerako herrien zonaldean mantentzea eskatu zuen mozio baten bidez.



Berriztik Durangorako joan-etorria ordaindu barik egin zuten.

# Batzarrerako deia merkatarien elkarteko kide izan gura dutenei

Apirilaren 25an elkartuko dira, Errota kultur etxean

## ABADIÑO I.E.

Herriko dendari eta tabernari guztiak gonbidatu dituzte, apirilaren 25ean, 15:15ean, Traña-Matienako Errota kultur etxean egingo duten batzarrerara. Urte honen hasieran eratu eta mar txo amaieratik elkarrean erregistroan izena emanda dagoen Abadiñoko Merkataria Elkartera batu gura duten guztiei kide egiteko aukera eskainiko diete asteleheneko hitzordu horretan. Batzarrerara bertaratu ezin

arren, elkarteko kide egiteko interesa dutenek, berriz, helbide elektronikoa idatzita jaso ahalko dutela informazioa eman dute jakitera elkartearen sortzaileek: [amemerkatarielkartea@hotmail.com](mailto:amemerkatarielkartea@hotmail.com).

Udaleko gobernu taldea jardun zen, iazko urte amaieran, Abadiñoko merkatarien elkarte honen sorrera bultzatzen. Gobernu taldearen deialdia izan da merkatarien elkartearen sorrera ekarri duena.



Herriko dendari eta tabernariak gonbidatu dituzte batzarrerara.

# Lehenago hasi ahalko dituzte udalekuak 4 eta 10 urte artekoek

## ABADIÑO I.E.

Udalak asteon zabaldu duen oharrean azaltzen denez, udalekuak lehenago hasteko aukera izango dute, aurretik, 2006 eta 2012 urteen artean jaiotakoek: uztailaren 5etik egingo dute eskaintza. Lau egun gehigarri horiek ez dute udal laguntzarik izango, eta, beraz, udalekuak lehenago hasi gura dutenek, 60 euro gehigarri ordaindu beharko dituzte. Apirilaren 27a baino lehen jakinarazi beharko dute aukera hori baliatu gura dutenek: Errota kultur etxean zein Udal Mediatekan.

hitz

#gomendioak

artekalea 14, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

**HELDUENTZAT**  
LOS HEREJES DE AMBOTO  
Andere Berrojalbiz (2016)

**UME ETA GAZTEENTZAT**  
ELMER BERRERO ERE  
David McKee (2016)

**MUSIKA**  
HOTZIKARAK  
Petti & etxeko izar (2016)

clínica dental

hortz klinika

b. unamunzaga

e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

08:00etatik 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango  
 Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

# Juan XXIII kaleko zati bat oinezkoentzat jarriko dute

Ogenbarrena berrantolatu eta azpiegiturak berritzeko azken fasea martxan dago



Anartz Gandiaga, Andoni Agirrebeitia, Kepa Sacristan eta Carlos Azpiri, obretan.

**ZORNOTZA** J.Derteano Apirilaren 5ean, Ogenbarrenako zati bat berrantolatu eta azpiegiturak berritzeko lanak

hasi zituzten. 500.000 euroko aurrekontua izango dute lanek, eta lau hilabete iraungo dute. Iaz, lehenengo faseko lanak amai-

tu zituzten. Oraingo lan hauek Juan XXIII kaleari, eta, Unamuno eta Ogenbarrena kaleetako zati banari eragiten die. Lehen

faseko eredu berdina darabilte bigarrenean; amaituta dauden lanek ondo erakusten dute inguru osoa zelan geratuko den.

Oro har, gainaldean “inguruak berrantolatu, herritarrentzat espazio atseginak hornitu, eta argiteria berrituko” dute Kepa Sacristan obra zuzendariaren arabera. Oinezkoak lehenetsiz, baina “ibilgailu eta oinezkoen arteko koexistentzia egokirako guneak sortuz”.

## Azpiegituretan “onurak”

Lur azpian, berriz, hoditeria eta telefonia sareak berritu eta antolatuko dituzte: “Ikusten ez diren lanak dira, baina onurarik handiena ekarriko dutenak”. Ildo horretatik, lehen faseko buruhausterik handienak azpiegiturek eragin zituztela gogoratu du Andoni Agirrebeitia alka-teak, “sistema batzuk narriatuta zeudelako”. Arduradunek arazo horiek bideratzeko egingo dako lana ere azpimarratu du.

Juan XXIII kaleko alde bat ia amaituta dago: azpiegiturak

berritu dituzte, asfalto inprimatua bota dute, eta aparkalekuak pintatzea falta da. Beste aldean, beste horrenbeste egingo dute. Horrez gainera, aparkalekuak bidearen beste aldera pasatuko dituzte, eta orain arte lez, baterian aparkatuko da. Gune horretan, kale itsu bat dago. Orain arte, autoak sartu ahal izan dira; lanak amaitzean, oinezkoentzat jarriko dute: besteak beste, lau urki landatuko dituzte, eta eserlekuekin hornituko dute. Lan hauek dira azkenengo burutuko dituztenak.

Juan XXIII kalearen paraleloa da Unamuno kalea. Kale honetako lan erdiak lehenengo fasean egin zituzten, eta orain, Ogenbarrena aldeko ekingo diete, lehen faseko eredu jarraituz.

Gaur egun, Ogenbarrena kalean ari da lanean Bermeosolo enpresa. Aurreko biekiko perpendikularra den kale horretan hasi dituzte azken faseko lanak. Azpiegiturak berritzen dihardute.

## Publierreportajea

## Gaztetxearen 15. urteurreneko egitaraua aurkeztu dute

**OTXANDIO** J.Derteano Otxandioko gaztetxeak 15 urte egingo ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko egun osoko egitaraua prestatu dute ekainaren 4rako. Urteurrenaren harira, joan zen asteburuan postu bat jarri zuten plazan, ateratako materiala saldu eta egitaraua publiko egiteko.

Adin guztietarako egitaraua osatu dute ekainaren 4rako. Haurren txokoa antolatuko dute gaztetxoenei begira. Eguerdiko trikipoteoa bazkari herrikoi batekin amaituko dute. Arratsaldean, koloretsua izango dela dioten kalejiran irtengo dira. Ospakizun eguna musika kontzertuekin amaituko dute.

‘Handitzen handitzen’ leloa aukeratu dute urteurrenerako. Logo berri bat ere badute: lego piezekin osatutako pertsona, oinezkoen bidea egiten ari dena. Piezarik pieza handitzen joan direla adierazi gura dute, eta etorkizunean ere denek elkarpenak baliotsuak izango direla.



## Jasokunde abesbatzak Otxandiora egingo du irteera

**MALLABIA** Paul Bustindui Datorren apirilaren 30ean, Mallabiko Jasokunde Abesbatza Otxandiora joango da, kantuan. Bertan, kontzertu bat eskainiko dute, eta azken bi kantuak Durangoko Lamina-makoeekin eta Otxandioko kantu tailerrean dabilen ikasleekin batera abestuko dituzte. Emanaldia 19:00etan izango da, herriko elizan. Antolatzaileek azaldu dutenez, ekitaldia bukatu ostean, kantupoteoa egongo da Otxandioko kaleetan zehar, giroa berotzeko.

Durango eta Otxandioko kantu tailerrekoekin batera abestuko dute mallabitarrek

Bestalde, ekainean, Arratiako Arantzazura ere antolatu du irteera Jasokunde abesbatzak. “Ekainaren 30ean, 19:00etan, Arantzazun izango gara”, adierazi du Leire Uribelarrea koruko kideak. Kontzertua bi zatitan egongo da banatuta, sakroa aurrenik, eta folklorea ondoren.

Mendibil abesbatzak ere bere elkartrukea izango du uda aurretik, ekainaren 18an, zapatuan, Urduñara joango baita kantuan.

## Aurten emakumeei egingo zaie aitortza Elgetan

Intxortako Erresistentzia Eguna egingo dute apirilaren 24an, domekan, Elgetan



luz, milizianoak eta gudariak omendu zituzten.

## Publierreportajea

Apirilaren 24an, 16:00etan, 79 urte beteko dira frankistak Elgetan sartu zirela eta, Intxortako Erresistentzia Eguna egingo dute. Elgeta

## EGITARAUA

APRILAK 23, ZAPATUA  
**18:00** Bisita gidatua.  
**19:30** Orkestra Elektrotxaranga.  
**22:30** Kontzertua: Perlak + Gose.  
 APRILAK 24, DOMEKA  
**10:00** Hamarretakoa.  
**10:30** Gudari eta milizianoen igoera.  
**10:40** Lore eskaintza Salbadoreen.  
**11:30** Errekreazioa Intxortako atean.  
**12:00** Lubakiak ikusteko aukera.  
**12:30** Martxa Elgetara.  
**13:00** Emakumeei omenaldia. eta Gasteizko Abesbatza Errepublikanoa.  
**14:45** Bazkaria frontoian.

erresistentziaren ikono izan zen. Aurtengo Erresistentzia Egunean, emakume erresistenteak eta errepresaliatuak omenduko dituzte.

## Errekreazioa Intxortan

Asteburu osorako ekintzak dituzte. Intxortako Atean 1937ko apirilako borrokaldien errekreazioa egingo da, laugarren urtez, 11:30ean, eta 150 lagunek parte hartuko dute. Emakumeen parte-hartzea sustatu eta errekreazioan 42 emakumek parte hartuko dute.

## Bisita gidatuak

Elgetako frontea ezagutzeko bisita gidatua urte osoan egin daiteke. Hileko lehenengo eta azkeneko domeketan egiten dituzte, 5 euroren truke. Hiru ordu eta erdikoak izaten dira; lehenengo, museoa bisitatzen dute, eta ondoren, ibilaldia egiten dute, oinez –bost kilometroko ibilaldia–. Harrera-gunea eta erakusketa Espaloia Kafe Antzokian daude. Ibilbidean, Elgetako Intxorta mendiko frontearen zehaztasunak ezagutu daitezke. Aurrez izena eman behar da **turismo@debagoiena.net** helbidean. Bisitak beste edozein egunetan ere egin daitezke, gutxienez 12 laguneko taldeak izanez gero.

## APP-a

Sakelektik Intxortako ibilbidea ezagutzeko aukera ere badago Elgeta Memoria aplikazioaren bitartez. App Store eta Google Play denda birtualen bitartez jaitzi daitezke frontearen ibilbidea. Audio-gida baten bitartez, ibilbideko puntu ezberdinak ezagutu daitezke. Sei hizkuntzatan dago aplikazioa: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, alemanez, frantsesez eta katalanez.



## Iurretak eta Boisek elkarlana abiatzeko pausoak eman dituzte

Iurretan jaiotako Benito Ysursaren omenaldian parte hartu du Totorikaguenak



Totorikaguena eta Boiseko alkatea argazkiaren erdian, Benito Ysursaren omenaldian.

**IURRETA** Jone Guenetxea  
Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea astebeteko bidaia egin du Boisea (AEB), Benito Ysursaren omenaldian parte hartzeko. Benito Ysursa-Basabe 1915ean joan zen Iurretatik. Amerikako Estatu Batuetara joan zen, eta urte askoan euskal kultura ezagutzera emateko lan handia egin zuen arlo anitzetan. Bere lana gogoratzeko eta aintzatesteko ekitaldien artean, Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea Boiseko alkatea den David Bieter-egaz batu zen. Iurretako oroigarri bat utzi zuen Boiseko udaletxean.

**Elkarlana bultzatuz**  
Bidaiaren beste helburuetako bat elkarlanerako pausoak ematea izan zen, Bai Euskal Etxeko ordezkariekin eta baita Oinkari dantza taldeekin ere. Il-do horretatik, Iurretan tradizio handia duten erregelek interes handia piztu zutela azaldu

du Totorikaguenak. “Ikasteko gogoaz azaldu zuten. Horren inguruan zer egin dezakegun hitz egiten egon ginen”. Alkateak Iurretako bandera ere eraman zuen amerikarrei erakusteko. 1911ko bandera zaharraren erreplika, hain zuzen.

Iñaki Totorikaguena:  
“Oinkari dantza taldeak erregelek ikasteko gogoaz azaldu du”

**Ysursa familia hunkituta**  
Ysursa familiak ilusio handiz hartu du Iurretako alkatearen bisita bere senitartekoaren omenaldian parte hartzeko. “Oso maitatua sentitu naiz. Hemen Benito gogoratu onartu genuen adierazpena ilusioz hartu zuen Ysursa familiak. Era berean, bertara bidaiatzea hunkigarria izan da”.

## Bakailao erreagaz hasiko dituzte jaiak Oromiñon

San Marko egunez herri bazkaria izango dute

**IURRETA** Aitziber Basauri  
Donien Atxa altxatuta hasiko dituzte, domekan, Oromiñoko San Marko jaiak. Eguerdian batuko dira auzokoak horretarako, eta, ondoren, parte hartu duten guz-

tientzat bakailao errea egongo da. Igel txapelketa izango dute ondoren.

Astelehenerako, San Marko egunerako, herri bazkaria antolatu dute. Meza ostean izango

da hori; eta, 17:00etan, briska txapelketa hasiko da.

Hala ere, ekintza gehienak hurrengo asteburuan batu dituzte. Apirilaren 29an, ‘Mexiko’ gai lez hartuta, moztaroz azeria egongo da. Hilaren 30ean, berriz, Maiztegi eskolako umeen dantza erakustaldia, tortilla txapelketa eta Luhartz taldea egongo dira, besteak beste. Azoka, Iurretako Mikel Deuna dantza taldearen saioa eta asto probak izango dituzte maiatzaren lean.

## Erreka garbitzera deitu du Gazte Asanbladak

**IURRETA** A.B.  
Ibaizabal erreka garbitzera dei egin dute Iurretako Gazte Asanblako kideek. Apirilaren 23rako, zapatarako, jarri dute hitzordua, 11:00etan. Garbiketa lanetarako Montoian elkartuko dira, azaldu dutenez.

Ibaizabal erreka errega errega ikusita (plastikoak, botilak, sokak, gurpilak...) erabaki dute garbitzera irteera, eta herritarrek ere deitu dituzte lanotan parte hartzea: “Erreka guztioa da, garbitu dezagun denon artean”, gogoratu dute.

Garbiketa lanak amaitu ondoren, parte hartuko duten guztientzat luntxa egongo da. Dantzari plazan izango da hori, Gazte Asanbladako kideek jakinarazi dutenez.

## Salmenta onak eduki dituzte Landare Azokan

Jende ugari hurreratu zen Garaira domekan

**GARAI** M.O.  
Landare eta Lorezaintza Azokaren laugarren edizioa egin zuten domekan Garain, eta jende ugari joan zen. Garaiko Udalak, Urkiola Landa Garapen elkarteak eta Trumoitte elkarteak

antolatu dute azoka, eta Juan Mari Totorikak (ULG) azaldu duenez, bere ustez, ediziorik jendetsuena izan da aurtengoa. Salmentak eta giroa oso onak izan zirela nabarmendu du, gainera.



Loreak, landareak eta lan-fresnak egon ziren ikusgai, besteak beste.

## San Jurgi eguna ospatuko dute, etzi, bitañoarrek

**IZURTZA** J.Derteano  
Bitaño auzoan San Jurgi eguna ospatuko dute domeka honean, 12:00etan. Bitañon San Jurgi santua gordetzen duen monolito bat dago, eta haren inguruan batuko dira bitañoarrek azken urteetako ohiturari eutsiz. Luntx bat izango da bertaraten direnentzat.

Domeka eguerdian, orain bost urte hil zen Gabriel ‘Gabi’ Rojo Fernandez ere gogoratuko dute. Besteak beste, izurtzar horren ekimenez dago San Jurgiren monolitoa Bitañon. Auzoko nagusiek eta esanda, antzina inguru hartan ermita bat izan zela jakin zuenean okurrutu zitzaion santua berreskuratzeko ideia. Gastuak ere bere gain hartu zituen, Pedro Gallastegi izurtzarraren esanetan. Horregatik, ‘Gabi’ gogoratzeko berbak izaten dira urtero.

## Gudari eta milizianoen omenez, Castet Eguna

Domekan egingo dute Santamañezarrera iguera

**ZALDIBAR** I.E.  
1937ko apirilaren 25ean Santamañezarren izandako borrokan “Euskal Herriaren eta askatasunaren alde” faxisten erasoaldiari eutsi nahian hil ziren gudari eta milizianoen omenez antolatu dute XXIV. Castet Eguna. Borroka horretan hil zen Iñaki Castet gudariaren izena du oroimen ekitaldiak. Mendi ibilaldia egingo dute, apirilaren 24an, herrigunetik Santamañez tontorreraino: udaletxe plazatik irtengo dira, 10:00etan, eta Herriko tabernan ekitaldia egingo dute, bueltan, 13:00etan.

Biharko, apirilaren 23rako ere, egitaraua antolatu dute, aurtan, Castet Eguneko egitarauaren barruan. Goizean, 11:30ean, umeentzako jolasak egingo dituzte; 12:30ean, *Erre-*

*fluxiatuak ongi etorri* lemapean, elkarretaratzea egingo dute autobus geltokian; 13:00etan, Zaldibarko perkusio taldearen emanaldia izango da, eta herri bazkaria egingo dute, ostean.

10:00etan udaletxe plazatik irten, eta Santamañezarrerainoko ibilbidea osatuko dute

Musika eta bertsoak izango dira, berriz, arratsaldean eta gauetan: Ali Disaster arituko da, 18:00etan, Garikoitz Sarriugarte eta Beñat Ugartxea bertsolariekin trikipoteoa egingo dute ondoren, eta DJen emanaldia izango da, eguna amaitzeko.



# Desjabetze aktak sinatuta, bide berriak lantzen dihardu udalak

AHTaren desjabetze aktak sinatu dituzte, eskatutakoa bete dutelako



Gobernuko ordezkariak desjabetuko diren partzeletan bertan batu ziren lur jabeekin.

**ATXONDO** Joseba Derteano Eguazten arratsaldean eta eguen goizean, AHTko desjabetze aktak sinatu zituzten Atxondoko 12 bat lurjabeek. Gobernuko ordezkariak hainbat bider joan dira helburu beragaz, baina prozeduran formazko akatsak arrazoituta, alkateak ez ditu sinatu. Oraingoan, desberdina da. Udalak eskatutako moduan, banan-banan egin diete deialdia jabeei. Aktak, desjabetu gura dituzten partzeletan bertan sinatzea zen beste eskakizun bat, eta hori ere bete dute. Partzelaz partzela joango dira —alkatea ere berdin— jabe bakoitzarekin egoteko. Horrela, “eskatu

duguna betetzen ari direla ikusita, nire obligazioa aktak sinatzea da” dio Dabid Cobos alkateak. Azken batean, “hori eginda edo egin barik, berdin desjabetuko dituzte partzelak” dio Cobosek: “Aktak sinatzera koan egiten den bakarria partzelaren ezaugarriak eta alde biek esandakoa jasotzea da, baina jabeak babes gehiago ematen dio ondo jasota geratzen badira”, eta horixe zuten helburu.

*Atxondon AHTrik ez; Gelditu dezagun* lelopean hainbat atxondar ere partzelarik partzela ibili ziren atzo. Argazki batzuk ateratzearen, ertzainek gazte bat identifikatu zutela azaldu dute.

## “Ez da amore ematea”

Aktak sinatzea “ez da amore ematea, inondik ere, Cobosen esanetan: “Guk, udal moduan, lege aldetik dauden beste tresna batzuk erabiltzen jarraituko dugu; inork ez dezala pentsatu bihar edo etzi hemen ezer amaitzen denik”. Eskuarlean beste hainbat baliabide darabiltzela dio alkateak. Horietako bat jakina da: Solatxoko betekekua. Udalak betekekura ko baimena bertan behera uzteko eskatu zion Jaurlaritzari orain hilabete baino gehiago, “eta oraindik ez dugu erantzunik jaso”. Lege aldetiko beste bide batzuk ere prestatzen ari direla adierazi du.

## Herriko emakumeen lan egoera berberak

### BERRIZ M.Z.

Berrizko Udalak 2015ean emakumeen lan egoeraren gainean egindako diagnostikoaren emaitzak plazaratuko ditu apirilaren 30ean, zapatuan.

Udalak 10:00etan Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko dituen datu hauekin, herritarrei zein herriko elkarte edo taldeei Berrizko emakumeen egoera erakutsiko die. Jardunaldi honekin, emakume horien esperientziak jaso eta ondorioak atera gura dituzte.

## Bide publikoen inbentarioa egingo du udalak

### MAÑARIA M.O.

Mañariko Udalak herriko bide publikoen inbentarioa egingo du. Prentsa oharrean diotenez, lanerako edo aisialdirako erabili diren bide horiek sarritan herritarren arteko “gatazka-iturri” ere izan dira. Arazo horiek konpontzeko asmoz burutuko dute inbentarioa. Udalaren arabera, “garrantzi handikoa” da herritarrek ikerketan parte hartzea. Horregatik, hilaren 28an aurkezpene egingo dute, 19:00etan, udaletxean.

### SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI  
DIAZ  
EAJ



### Urrea esan eta urria eman

Oraindik dantzan dagoz amankomunazgoa osotzean presidentek esandako hitzak. Aldaketa zetorren, ezkerretik alegia. Eta etorri da, bai, baina nundik? EH Bilduk eta Herriaren Esku-bideak aurkeztutako aurrekontuetan argi ikusi dira. BTTaren proiektuaren inguruan ez da zipitzik ere jaso. Halan, geldi geratzen da EAJk Durangaldearen onurarako martxan jarri zuten proiektua. Tamalgarria benetan, biztanleak baitira gal-tzaile.

Aldaketekin jarraituz, begiak arranzpalo utzi gintuen orain arte diru-laguntza jaso duten hainbat elkarte esku hutsik geratzeko arrisku larrian daudela ikusteak. Elkarte apalak, helburu sozial eta lagunkorragaz. Ba al dakite Gorabide eta Herria elkarteek gobernu talde berri honek ez duela orain arte jaso izan duten diru-laguntza bermatzen? Gaur egun ez dago mahai gainean inolako proposamenik diru-laguntzen inguruan. Ze pena, elkarte batzuen proiektuek aurrera egiteko bermea ez egotea.

Baina, zer espero gizarte zerbiztuen indartzea kanpoko enpresa baten bitartez egin nahi izan dutenengandik? Nola deitu horri? Pribatizazioa?

Zein foro parte-hartzailetan hartu dabiez erabakiak? Ene, parkatu! Ez da foro parte-hartzailerik egon eta! Nun dagoz hainbestetan aho betez aipatu dabiezan herritarrak eta parte hartzea? Haizeak bizkor eraman dabiezan hitzetan.

Beraz, aldaketak etorri dira, bai, baina ezkerretik baino eskumatik, eta murrizketekin, PPren estiloaren isladari jarraituz. Estiloa aldatzen ote dagoz? Gauzak ondo, txarto edo EH Bilduren erara egin daitezke, hau da, txartoago. Aldaketa etorri da, bai, txarrerako aldaketa.

### DURANGALDEA ASTEON

#### Mugarri Eguna ospatuko dute etzi

**DURANGO** > Domekan Mugarri Eguna ospatuko dute Durangon. Goizean irtengo dira Andra Maritik, 08:30ean, eta herriko hainbat mugarri bisitatuz osatuko dute ibilbidea.

Mugarri Eguna 2000. urtean egin zuten lehenengoz, eta guztira, hirutan osatu da 176 mugarriko ibilbide osoa.

#### Euskal Jaian batuko dira ume dantzariak

**ELORRIO** > Domekan Euskal Jaia ospatuko hitzordua dute Elorrioren eskualdeko ume dantzariak. Besaide dantza taldeak antolaturiko egun guztiko jaia da.

11:00etan, kiroldegian elkartuko dira dantzariak, eta hainbat ekintza burutuko dituzte egun guztian zehar. Alarde nagusia 17:00etan izango da.

#### Mercadona eta Lidl en proiektuaz batzarra

**ABADIÑO** > Mercadona eta Lidl supermerkatuen proiektua herritarren aurrean azalduko du Abadiñoko Udalak. Astelehenean izango da batzarra, 19:00etan, Errota kultur etxean.

Saltoki handi biak zabaltzeko, 32.000 metro karratuko eremua birkalifikatu nahi du udalak, Murueta auzoan.

### IRITZIA

#### Gutuna

Hilabete batzuk daramazkigu Gorka Fraile larriki gaixo dagoen presoaren eskubideak berma daitezela eskatzen. Hainbat ekimen burutu ditugu egoera jendarteari azaltzeko. Zoritxarrez, Gorkak espetxean jarraitzen du, eta gaixo dago oraindik. Presoek, preso egoteagatik, ez lituzkete euren oinarriko eskubideak galdu behar, baina norik bermatzen dio osasun eskubidea Gorkari? Tratamendu egoki bat, elikadura duina, giro egokia, lasaitasuna... hau da min-bizia duen edozein pertsona sendatzeko beharko lukeen bidea. Gaixotasunak ez daude erritmo politikoei eta batzuen zein besteen interesei begira. Giza eskubideak ideologia guztien gainetik daude.

Aste honetan, Gorkaren eskubideak berma daitezzen pauso txiki

bat eman du Durangoko Udalak. Gorka Fraileraren plataformako ki-deek proposatutako mozioa onartu dute. Durangoko Udalak Gorkaren sendatze bidean pauso txiki bat eman du. Zorionak eta eskerririk asko asteartean plataformaren aldarria babestu zenuten alderdiei. Hala ere, ez da nahikoa! Durangarrok, durangar bezala, konpromiso bat daukagu. Gorkaren eskaerak betetze aldera, indarrak batu behar ditugu.

Larunbat honetan burutuko dugun ekimenerako gonbita luzatze-  
ra gatoz. Arratsaldeko 18:30ean, Landakoko osasun zentrotik abiatuz, Gorkaren etxeratzea eskatuko dugu Durangoko kaleetan zehar!

Animo Gorka, etsi! Jaso ezazu besarkadarik goxoen zure herritarron eskutik!

astekaria@anboto.org  
astekaria 17:00ak arteko epea

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

#### DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

## **> Berbaz**

Juan Atxutegi | Salvamento Maritimo Humanitario GKEarekin Chiosen (Grezia) egon da | **Zornotza, 1987**

# “Ez dituzte Turkiara eroaten, baina Europara joaten ere ez diete uzten”

Chiosen (Grezia) erreskate lanetan boluntario egon da Atxutegi, errefuxiatuen drama zuzenean biziz



**> BERBAZ** Aitziber Basauri Chiosen (Grezia) lanean ari da Salvamento Maritimo Humanitario GKEa. Larrialdietako profesionalak dira bertan boluntario dabilzanak: 20 eguneko egonaldiak egiten dituzte, 6-7 laguneko taldeetan. Etorri berri da Juan Atxutegi, eta aurrez aurre ezagutu du han bizi duten drama. 24 orduko guardiak egiten dituzte, eta bertan dauden beste boluntarioei formazioa ere ematen diete.

**Milaka pertsona heldu dira Chiosera gerratik ihesi.** Gatazka humanitario erraldoia da han gertatzen ari dena. Heriotzetik, gerratik, gosetik... ihesean daude Chiosen milaka pertsona, eta, Europako atara iristean, lau metroko alanbre-hesia eta Frontexa (Europako Batasuneko mugen zaintzarako agentzia) topatu dituzte.

**Mugak itxiz eta errefuxiatuak atxilotuz erantzun du Europak.** Bai. Chios eta Turkia arteko kanalean inor itota ez hiltzea dugu eginkizun nagusia, eta, horretarako, erreskate ontzi bat dugu. Chios Turkiatik zazpi kilometrora dago, eta, egunero 20-30 dingi (gomazko ontziak) pasatu

“*Europar lez, gutxienez lotsa sentitu dut. Euren eskarietarako ez dugu erantzunik*”

izan dira; 50-70 lagunekin bakoitza. Erreskate azpiegiturarik ez zegoen, eta Greziako gobernua-gaz eta Frontexagaz berba egin ostean joan ginen, udazkenean. Izan dira 600-700 lagun jaso ditugun egunak. Iristean beste hainbat arazo zegoela ikusi genuen.

### **Zeintzuk?**

Osasun arazo larriak. Urte eta erdian, 160.000 errefuxiatu heldu dira, eta osasun azpiegiturarik ez dago. Larrialdiko osasun arreta emateko bizi-euskarri aurreratuko anbulantzia dugu.

### **Turkiako ituna sinatu ondoren, egoera aldatu egin da?**

Asko handitu dira Frontexaren baliabideak; Europak itsasontzi pilo mugitu du Turkiako muga. Ontzi militarrek, polizialak dira, eta beraien eginkizun nagusia ez da erreskatea, baina errefuxiatu ontzi gutxiago etor-

tzea eragin du. Datozenek bide arriskitsuagoak erabiltzen dituzte, eta gauean datoz. Batez ere, gauez egiten dugu lan guk. Portu seguru batera eraman, eta osasun arreta ematen diegu.

### **Arazoak asko aldatu dira?**

Itsasoan mugimendu gutxiago dago: egunero bizpahiru txalupa heltzen dira. Baina, lurreko lana eta lan sanitarioa asko handitu da. Orain arte, Chiosen bizpahiru egun egiten zituzten errefuxiatuek, Atenasera edo Europako beste herrialderen batera bidea hasi aurretik. Orain, ezin dira bertatik mugitu. Ia-ia atxilotuta daude. Egunetik egunera handituz doa irletako jende kopurua. Horrek

osasun arazo handiagoak sortu ditu, eta anbulantziak gero eta lan gehiago du.

### **Greziako irlak kartzela bihurtu dira? Lesbos da ezagunena.**

Lesbos da inguruko irlarik handiena, eta errefuxiatu fluxurik handiena jaso du; %60 inguru. Baina, Turkiako kostaren aurrealdean dauden Greziako 5-6 irletara sartzen saiatzen dira.

### **Baina, ezin dira Grezitik irten.**

Turkiako itunaren aplikazioa oso zaila da. Ez dituzte Turkiara eroaten, baina Europara joaten ere ez diete uzten. Muga eta harresi asko eraiki da. Europako krisia zena Greziako krisi bihurtu da. Atenasetik Pireoko

porturako bide ertzetan milaka pertsona daude. Irletara heltzen direnak han gelditzen dira. Chiosen inoiz baino errefuxiatu gehiago daude, eta gehiago izango dira, egunero bizpahiru ontzi iristen badira; astean, 200-300 lagun gehiago dira. Asiloa eskatzen dute gehienek, baina, askok euren egoera zein den ere ez dakite, zein aukera dituzten.

### **Baina etortzen jarraitzen dute.**

Bai. Turkiako itunaz galdetuta, horren berri badutela erantzuten dizute, baina saiatu beharra dutela. Ez dutela beste aukerarik, atzean ez dutela ezer uzten. Ez dutela nora bueltatu.

### **Zer deritzozu Turkiako itunari?**

Arazoak dirauen bitartean, han egongo gara. Zentzu horretan, egoera ez da aldatu. Ikuspuntu pertsonaletik, berriz, uste dut ez dela giza-hitzarmen bat. Pertsonak pertsona lez baino, merkantzia lez tratatzen ditugu. Europar lez bestelako erantzuna ematea gostatuko litzaidake.

### **Nola bizi duzu errefuxiatuekin duzun harreman zuzen hori?**

Zaila da. Itsasoan edo kostan aurkitzean, ‘welcome’ esaten diegu. Bestelakoa da, baina, errealitatea. Europak ez die ongi-torria ematen. Europar lez, gutxienez, lotsa sentitu dut. Harremanak sortzean lotsa sentitzen duzu, euren eskarietarako erantzunik ez duzulako. Gure esparruan, laguntzen saiatzen gara, ahalik eta erantzun giza-tiarrena ematen.

### **Nola bizi dute egoera beraien?**

Milaka dira, egoera oso desberdinetan (bakarrik datozenak, familia osoak, Europan familia dutenak...). Itxaropen handiagaz datoz batzuk, eta jota beste batzuk. Milioika dira Afganistan, Siria, Pakistan, Iraketik... egoera oso latzetatik ihesi datozenak. Umeena da aurpegirik latzena. Piloa daude. Atxilotzen-troetan daude asko, familiek.



Sorosle, erreskate patruila, mediku, erizain eta larrialdietako teknikariek osatzen dute Chiosen ari den boluntario taldea.

**> ZINEMA** Itsaso Esteban Eneko Sagardoy aktore durangarra hautatu du *Loreak* edo *80 Egunean* filmak sortu zituen Moriarti ekoiztetxeak, *Aundiya* izeneko film berriaren protagonistaren papera antzezteko.

Joan zen astean ekin zioten filmaren grabazioari, eta zortzi astez, Euskal Herriko hainbat lokalizaziotan jardungo dira: Beizaman hasi dira, eta Leioa, Bilbo, Gasteiz, Baiona, Biarritz, Durango, Tolosa, edo Altzon grabatuko dute, besteak beste.

Eneko Sagardoyk antzezten duen protagonistaren ibilerak kontatuko ditu XIX. mendean kokaturiko istorioak: *Altzoko Aundiya* ezizenez ezaguna egin zen Miguel Joaquín Eleizegirenak. Bere gorpuzkera handi eta berezia zela eta, Espainia, Portugal, Frantzia eta Ingalaterrako Gorteetara eraman zuten Altzon jaiotako gizona, errege-erreginek ikus zezaten.

Sagardoyren berbetan, “Eleizegiren eta Joseba Usabiagak antzezten duen bere anaia Martinen abentura” da filmaren ardatza, “18 urte zituztenean hasi, eta 40 dituztenera arte luzatzen den 25 urteko bizi-bidaia”.

Duela bi mendeko istorio hori kontatu ahal izateko Moriarti ekoiztetxeko lantalde guztiak egiten duen lana goraiatu du Durangoko aktoreak: jantziei, orrazkeriei, tresneriari, zein berba egiteko moduari lotuta, aurre lanketa handia egin dute.



‘Altzoko Aundiya’ ezizenez ezaguna zen Miguel Joaquín Eleizegiren bizipenak kontatuko ditu Jon Garañok eta Aitor Arregik zuzenduriko filmak.

## ‘Aundiya’ filmeko protagonistaren papera grabatzen dabil Eneko Sagardoy aktorea

Joan zen astean hasi zen ‘Loreak’ filmeko lantaldea ‘Altzoko Aundiya’-ri buruzko pelikula grabatzen

“Bidaia oso interesgarria proposatzen du pelikulak: mundu zahar eta berriaren arteko taldea gertatu zen garai hura eta orduko pentsaera ezagutzera garamatzana”, dio Sagardoyk. Gizarteko aldaketek dihardu filmak, esparru intimoagoan ere eragina izan zuten aldaketek.

Mitoaren eta errealitearen inguruko gogoeta ere badago filmean, protagonistak azaldu duenez: “Benetan gertaturiko istorioa da, baina informazio gutxi dagoenez egiaztatuta, mito izaera hartu du denboragaz”.

“Zorte handia da honen moduko pertsonaia bat antzeztu

ahal izatea: horrelako ezaugarri fisiko eta psikologikoak dauzkana”, dio Sagardoyk. Lantaldeko gremio guztietan sentsibiltate handiko kide bikainak dituela ere azpimarratu du aktore durangarrak: “Asko zaintzen dituzte detaile guztiak, eta oso babestuta sentitzen naiz”.

**Figuranteak Durangon** Maiatzaren 15ean, Durangoko Alde Zaharrean ibiliko dira grabatzen, eta adin guztietako figuranteak beharko dituzte. Parte hartu gura dutenei *aundiyanahi@gmail.com*-era euren adina, argazkiak eta telefono zenbakia bidaltzeko eskatu diete.

### > DANTZA I.E.

Seigarren urtea da Dantzaren Nazioarteko Egunagaz bat egin da programazioa prestatzen dutena Durangon, eta egun osorako plana antolatu dute aurten ere, apirilaren 23rako. L’Atelier dantza eskolak, udalaren babesaz antolatzen du egitaraua.

Umeentzako tailerrek inhasiko da programazioa, 10:30ean, eta 21:00 aldera arte luzatuko da jaia. Ballet klasikoak zein dantza modernoko askotariko estiloak ere eskainiko dituzte L’Atelier dantza eskolako ikasleek, Landakogunean eta Sanagustinalden egingo dituzten emanaldietan. Tronperri eta Txoritxu Alai euskal dantzen taldeekin Landakogunean emanaldia eskaini eta gero, kalejiran joango dira dantzariak Sanagustinalderaino, eta han eskainiko dute L’Atelierreko dantzariak barrako ballet emanaldia, 13:00etan.

Plateruenean bazkaldu ostean, musikaren eta dantza modernoaren txanda izango da: Musika Eskolako Gehizapzi

biolontxelo taldeak kontzertua eskainiko du, eta kantu saioa eskainiko dute Ion Ugarriza eta Paule Maiagarai abeslariak. Ondoren, Landakogunean izango dira dantza emanaldi gehiago ere, 18:00etan eta 20:00etan, hain zuzen ere.

Oiane Azkonizaga L’Atelier eskolako arduradunak aurreratu duenez, 300 dantzariak parte hartuko dute askotariko dantza erakustaldi horietan: hiru urteko ikasleetatik hasi, eta dantzazale helduetaraino. “Gure egunerokoan dantzaren arloan egiten dugun lana kalera atera, eta herritar guztiek goza dezaten eskaintzea da programazio honen helburua”, Azkonizagaren berbetan.

Orain hamarkada bat dantza eskola martxan ipini zutenetik L’Atelierrek Durangon dantza bultzatu eta ezagutzera emateko egin duen lana goraiatu zuen Mari Jose Balier zinegotziak, joan zen eguaztenean udal txean egitaraua aurkezteko eskaini zuten prentsurrekoan.

## Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, egun osoko egitaraua

Bihar, Dantzaren Nazioarteko Eguna dela-eta, kalera aterako da L’Atelier



Sanagustinalden barrako ballet emanaldia eskainiko dute Durangoko dantza eskolako ikasleek, 13:00etan.

**Eskarne Zabala | Irakaslea eta artista | Berriz, 1974**

# “Berriro sortzen hasteko aitzakia izan da erakusketa honen prestaketa”

Grabatuak ipini ditu Zabalak Berrizen ikusgai

**> ARTEA** Itsaso Esteban  
Arte Ederretan lizentziatua da, eta plastika irakasten du. Hainbat urtez sorkuntza albo batera utzita eduki ostean, bere herriko Kultur Etxean ipini du erakusketa. Apirilaren 29ra arte egongo da ikusgai.

Noiz eta zer ideiaz egindako lanak dira Berrizko erakusketa ipini dituzunak? Erakusketa honetarako sorturiko lanak dira. Zortzi-bederatzirekin urtez margotu eta grabatuak egin barik egon eta gero, berriro sortzen hasteko aitzakia izan da erakusketa hau.

**Zergatik utzi zenuen hainbeste urtez sorkuntza?**  
Ez dut asko pentsatu horretan, baina izan daiteke presio tentsazio bat neukala: erakusketak eta beste hainbeste gauza egin behar nuela sentitzen nuen, eta asko kosta izan zait beti nire lana erakustea.

**Erakusteak zer dauka hainbeste eragiten dizuna?**  
Nire parte bat jendaurrean ipintzen dudala sentitzen dut. Kanpotik ikusten duena ez da ohartuko, beharbada, baina lan hauetan nire barruko parte bat erakusten dut, eta besteek ikusiko dutela pentsatzeak lotsarazi egiten nau.

**Lehenago ere egin izan dituzu, baina, erakusketak.**  
Bai, Durangon, Berrizen eta Portugaleten, adibidez. Baina, tentsio handia sortu izan dit beti nire lana erakusteak. Beti ibili izan naiz beldur horren kontra borrokatzen.

**Zein izan da erakusketako lan hauek egiteko prozesua?**  
Margogintza eta grabatu teknikak nahastuz, kobrezko xaflen gainean egin dut lan. Oso gustuko dut kobrea, ematen dituen aukerengatik. Oso luzea da xafalak prestatzeko prozedura:



Plastika irakaslea da Zabala berriztarra.

ondo pentsatu behar duzu non nahi duzun grisak egotea, non ilunak... Gero, xafla hori zultu eta nahi duzun irudia egin ondoren, azidotan sartu, eta tinta eman... Horren guztiaren gainean hasten naiz margotzen.

**Prozesu kimikoaren ondorioz, zure kontrolpetik kanpo hainbat aldaketa gertatuko dira egindako lanean...**  
Bai, irudi bakarrak dira erakusketakoak, monotipoak esaten zaie: ezin dira berriro errepikatu. Kobreak gainean margotu eta estampa bat egitekoan, ez dakizu sekula zer gertatuko den: tintaren arabera, giroko tenperaturaren arabera... desberdina da emaitza.

**Natura eta geometria dira zure koadroetako gaietako batzuk.**  
Bai. Orain arte irudi errealistagoak landu izan ditut, baina, esperimentatu egin gura nuen oraingoan. Konposizioaren

inguruan egin dudak gogoeta baten ondorioa da erakusketa: konposizio naturalaren eta artifizialaren loturaz jardun gura izan dut. Zientzia aldizkarietako nanoirudiak hartu ditut serie bat egiteko oinarri, adibidez.

**Zer lekutan egiten duzu lan?**  
Bilbo Arteko grabatuko tailerretan egin ditut erakusketako lanak. Lanerako behar ditudan makinak erabiltzen uzten didate han. Irailean hasi nintzen joaten, erakusketarako lanak sortzeko ideia buruan neukala.

**Asko sortu duzu hilabete gutxitan. Zelakoak izan dira tailerreko orduak?**  
Ordu asko eman ditut tailerretan, eta jo eta ke ibili naiz lanean. Baina, edozelan ere, asko disfrutatzen dut tailerretan: asko gustatzen zait esperimentatzea, materialak ukitzea... Bilbo Arten sartzen naizenean, mundua ez da existitzen...

**GEURE DURANGALDEA**

**LIBE MIMENZA**  
Kazetaria

**Telebista piztu nahiko nuke**

Laino ilunak badoazen urte sasoi honetan, negua ez dela horren gogorra izan aditzen dugu han-hemen; aldiz, txantxangorriaren txertoak ere ez gaitu gripe kronikotik salbatu.

Duela egun batzuk, Nafarroan ETBren emisioa eteteke agindua eman du Espainiako Gobernuak. Eraso kanpotik. Aste berean, Durangaldeko euskal hiztunak espainieraz aditu ditut (berriro ere) Teleberrian. Eraso etxetik.

Baina guri bost, ezta? Hemen inork gutxi pizten du ETB. Etxekoago ditugu bost, sei, lau edo bat. Hala diote audientziak.

Lasai gaude. ETB1ek Frantziako tourra eskainiko digu euskaraz, eta pilota, baita herri kirolak ere, edo ausardia pittin bat erakutsita. Asko Maite Zaitut esaten irakatsiko digu bihotzik gabeko herritarroi. Programazio paregabea.

Zuek topo egin al duzue kalean, dirua eskatzeko euskal hiztunon enpatia baliatzen duen iruzurgilearekin? Neuk momentuz ez, baina antenan agurtzen dut ia egunero. Izan ere, zer eskaintzen digu telebista publikoak gaur egun? Ez da gai izan Super Bat ikusiz hezi ginen belaunaldiari eusteko ere. Eta guk, umetan, telebista euskaraz soilik mintzo zela uste genuen.

Hizkuntza da bizi dugun munduaren margoa, eta zuri-beltzaren alde egin du ETBk. Bada, datorrela udaberria, polena bezala zabal dadila euskararen taliban frontea: alergia eragin dezala, doministiku, muki eta malkoz beteriko begi gorrien artean erne dadila uda. Euskararen hego haizeak margotu dezala urtaroa.



Margogintza eta grabatu teknikak nahastu ditu artista berriztarrek.

 <p><b>Recital Música Castellana</b> Tierra Noble / Grupo de Danzas Virgen de Guadalupe la Encina / Kriskitin Dantza Taldea <b>Apirilaren 23an, 19:00etan</b></p>	 <p><b>El Florido Pensil niñas</b> Tanttaka Teatroa <b>Apirilaren 24an, 19:00etan</b></p>
<p>Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021 sanagustin@durango-udala.net</p>	

<p><b>PLATERUENA</b> Durangoko Kafe Antzokia <a href="http://www.plateruena.eus">www.plateruena.eus</a> Landako etorbidea, 4A   48200 Durango   Tel.: 946 030 300</p>			
<p><b>JAT ETX EA</b> EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK</p>	<p><b>APIRILAK 22</b> 18:00etan <b>HITZETZ ETA AHOTSEZ</b> IRAKURKETA</p>	<p><b>APIRILAK 23</b> 22:30etan <b>COBRA + HIGHLIGHTS</b> KONTZERTUA</p>	<p><b>APIRILAK 28</b> 20:00etan <b>KANTALAGUN</b> KANTALDIA</p>

# JAIAK!

## San Prudentzio

APIRILA | TRAÑA MATIENA-ABADIÑO



***Nik ez dut  
arriskurik hartzen***

*Prebentzioko liderrarekin bakarrik egiten dut lan*



**Premap Abadiño**  
Muruetta, 1  
UBG BUILDING Eraikina  
48220 - ABADIÑO  
Telf: 946 812 78

# SAN PRUDENTZIO JAIEN EGITARAUA

**APIRILAK 27**  
*Eguaztena, Donien Atxa*

**18:00** Koadrila guztien bilera Trañako zubian Donien Atxa ekartzeko.

**20:00** Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen, **Ustekabe** fanfarrea, **Iluntze** taldearen dantza saioa eta urteko lagun ospetsua saritzeko ekitaldia.

**APIRILAK 28**  
*Eguena, San Prudentzio, Umeen Eguna*

**11:00-13:30** Umeendako jolastokia Galizia plazan. Euria bada, frontoian.

**12:00** Meza nagusia.

**16:00** Gymkhana Galizia plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

**16:00-18:30** Umeendako jolasak Galizia plazan. Euria bada, frontoian.

**19:00** Euskalzumba: **Xaibor** Galizia plazan.

**APIRILAK 29**  
*Barikua*

**11:00-13:30** Giza futbolina (11-14 urte bitartekoentzat) eskoletako aterpean.

**16:00-18:30** Giza futbolina (11-14 urte bitartekoentzat) eskoletako aterpean. Laguntzaileak: Goxoa, Barnebide, Elorza, Doherty's, Vancouver eta McDonald's Abadiño.

**19:00** Futbito txapelketaren finala Traña-Matienako kiroldegian.

**20:30** Txupinazoa txosnen gunean Geu Be taldearen eskutik. Txosna batzordeak antolatua.

**20:45** Parrillada Traña plazan. Jai batzordeak antolatua.

**23:00** Jaialdia Traña plazan:  
• **Akerbeltz**

**APIRILAK 30**  
*Zapatua, Mozorro Eguna*

**14:00** Herri bazkaria Traña plazan. Jai batzordeak antolatua.

**17:00** Koadrilen arteko jokoak Traña plazan. Txosna batzordeak antolatua.

**19:00** Mozorro kalejira **Bizkarra** fanfarreak alaituta Trañabarren kalean.

**21:00** Mozorro txapelketaren sari banaketa Traña plazan.

**22:00** Antzerkia Errota Kultur Etxean: **Dudas razonables (Banarte antzerki taldea)** Gonbita beharko da sartzeko eta gonbitak eskura egongo dira apirilaren 25etik aurrera Errota Kultur Etxean (gehienez bi sarrera pertsonako).

**22:15** **Su artifizialak.** Tren geltokiaren ondoan. Euria edo haizea bada, atzeratu egingo da. Udalak antolatua.

**23:00** Kontzertua Traña plazan:  
• **Hamaika ikusteko jaiok**  
• **Hoax Attack**  
• **Zarpazo a Cicatriz**

**MAIATZAK 1**  
*Domeka*

**Goizean Geu Be** taldeak txahal bat erreko du Traña plazan. Euria bada, merkatu plazan.

**10:00** **Txanbolin** taldeko txistularien kalejira.

**10:00** Nekazari azoka Traña plazan. Euria bada, merkatu plazan.

**12:00** Herri kirolak Traña plazan: **Hodei Ezpeleta, Bihurri, Alex Txikon, Julen Mendieta** eta **Inaxio Perurena**. Euria bada, merkatu plazan.

**15:00** Mosu margoketa tailerra Errota Kultur Etxean.

**16:00** **Irrien lagunak** Errota Kultur Etxean\*. Lehen saioa.

**17:00** San Prudentzio pilota txapelketaren finala. Atxarte pilota eskolak antolatua.

**18:00** **Irrien lagunak** Errota Kultur Etxean\*. Bigarren saioa. \*Sarrera beharko da sartzeko, eta sarrerak salgai egongo dira apirilaren 25etik aurrera Errota Kultur Etxean.

**MAIATZAK 6**  
*Barikua*

**16:45** Txiki merienda Azoka plazan. Laguntzaileak: Mariam, Traña eta Paco fruitu dendak, Zure Denda, Uneibi, Beatriz elikagai denda, Hiper Eroski Abadiño eta Casa del Pueblo (Pipo's).

**17:30** **Oliver** magoa Azoka plazan.

**18:30** Jolasak Traña plazan Bizkaiko Gurutze Gorriaren eskutik. Txosna batzordeak antolatua.

**20:30** Frontenis txapelketaren finala.

**22:00** Bertso saioa Errota Kultur Etxean. Bertsolariak: **Jone Uria, Igor Elortza, Maialen Lujanbio** eta **Anjel Mari Peñagarikano**. Gai jartzailea: **Maite Berriozabal**. Gonbita beharko da sartzeko eta gonbitak eskura egongo dira maiatzaren 2tik aurrera Errota Kultur Etxean (gehienez 2 sarrera pertsonako).

**23:00** Jaialdia Traña plazan:  
• **Luhartz**

**MAIATZAK 7**  
*Zapatua, Gazte Eguna*

**Goizean**, paella txapelketa merkatu plazan.

**10:30** Kickboxing opena Traña-Matienako kiroldegian. Abadiño Fexmack taldeak antolatua.

**12:30** **Iluntze** taldearen dantza ekitaldia. Euria bada, frontoian.

**14:30** Txupinazoa eta herri bazkaria Traña plazan. Traña-Matienako gazteek antolatua. Euria bada, eskolako aterpean.

**15:30** Eskulanen tailerrak merkatu plazan.

**16:00** Ugasixo txapelketa merkatu plazan.

**16:00** Kickboxing opena Traña-Matienako kiroldegian. Abadiño Fexmack taldeak antolatua.

**17:00** Gazte Eguneke jokoak Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

**17:30** Tortilla txapelketa merkatu plazan.

**17:30** Poney gainean ibiltzeko aukera merkatu plazan. Berrizko Club Hipico Dukienaren eskutik.

**18:30** **Elektrotzaranga** kalejira. Txosna batzordeak antolatua.

**22:15** **Su artifizialak.** Tren geltokiaren ondoan. Euria edo haizea bada, atzeratu egingo da. Udalak antolatua.

**22:00** Kontzertua Traña plazan:  
• **Danny Meip**

**22:30** Jaialdia Trañabarren etorbidean: **Onda Futura**

**24:00** Play back Traña plazan.

**01:00** Kontzertua Traña plazan:  
• **Ze Esatek**

**MAIATZAK 8**  
*Domeka*

**11:00-14:00** Ludoteka eta betiko jolas erraldoiak Traña plazan.

**12:00** Xake erakusketa Trañabarren kalean. Abadiño xake taldeak antolatua.

**12:30** Laubideta kalean, pintxo dastaketa: Portugaleko gastronomia. Zalduerreka auzolan elkarteak antolatua.

**12:45** Kontzertua elizan, **Jaizale** Durangaldeko txistularien elkartearekin eta **Done Zezili** abesbatzarekin. Jaizale eta Musikariak taldeek antolatua.

**14:00** Jubilatuen bazkaria. Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatua.

**16:00** Mus txapelketa frontoian. Zalduerreka auzolan elkarteak antolatua.

**17:00** Jaialdia Traña plazan: **Los Amigos del Swing**.

**20:00** Donien Atxa kentzea, **Kun-kun** batukadak alaituta.

**Errota Kultur Etxean**  
Kartel lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa bat egingo da apirilaren 22tik maiatzaren 8ra bitartean

SALMENTA KONPONKETA · BOUTIQUEA

**MOTOS TABIRA**  
KONTZESIONARIO OFIZIALA

Tel./Faxa: 94 681 40 68  
[www.motostabira.es](http://www.motostabira.es)  
Arzubia ind., 10-b pabillola MATIENA-ABADIÑO

*Garage Miguel*

- GARBIKETA
- TAPIZERIAK
- MEKANIKA
- GURPILAK

Arzubia, 10 A  
1 Pabillola  
48220 Matiena

**ESTANKO ALBERDI**

Zubiarte, 7 MATIENA - ABADIÑO · Tel.: 946 814 033

**REDHILL** Language school

Zubibitarte, 11 etxabea ezkerre MATIENA, ABADIÑO  
(Jata-ren parean)  
946 814 282 · 606 757 720  
[www.redhilllanguages.com](http://www.redhilllanguages.com)

**MAPFRE**

BEGOÑA NAVARRO CAPANAGA  
MAPFREKO DELEGATUA MATIENAN

San Prudentzio, 2  
Matiena - Abadiño  
Tel.: 94 681 88 89  
[navarrb@mapfre.com](mailto:navarrb@mapfre.com)  
[www.mapfre.com/oficinas/4837](http://www.mapfre.com/oficinas/4837)

# Jon Peli Larruskain omenduko dute Traña-Matienako jaien lehenengo egunean

Jai batzordean kide izandakoari jaien lehenengo egunean egingo diote omenaldia, martxoaren 24an auto istripuan hil eta gero

## > JAI GIROA Paul Bustindui

Apirilaren 27ko eguaztenez, 20:00etan, San Prudentzio jaietako Donien Atxa altxatzeko ekitaldiaren ostean egingo diote omenaldia jai batzordeko kide izandako Jon Peli Larruskaini: jaien oroigarri bat emango diote haren senitarteko bati. Ustekabe fanfarrea arituko da giroa alaitzen. Bestalde, dantza saioa eta urteko lagun ospetsua saritzeko ekitaldia ere egingo dute. Aurretik, 18:00etan, koadrila guztiak Trañaiko zubian bilduko dira Donien Atxa ekartzeko.

Eguenean, apirilak 28, San Prudentzio eguna ospatuko dute, umeen eguna. 12:00etan meza nagusia izango da. Bestalde, gaztetxoentzat jolasak izango dira goizez eta arratsaldean, Galizia plazan. Ekitaldien artean jokoak eta gymkhanak egongo dira, eta, eguna bukatzeko, euskal zumba, Xaiborren eskutik.

Bariku goizean, 11-14 urte bitarteko umeentzat antolatutako giza futbolina izango da, goizez eta arratsaldean. 19:00etan, futbito txapelketaren finala jokatu da, Traña-Matienako kiroldegian. 20:30etan, Geu Be taldearen eskutik, txupinazoa jaurtiko da txosnagunean. Gauean, jai batzordeak antolatutako parrilladaren ostean, Akerbeltz taldeak joko du, Traña plazan.

Zapatua, hilaren 30a, mozorro eguna izango da. Eguerdian, jai batzordeak antolatuta, herri bazkaria egongo da. Arratsaldean, koadrilen arteko jokoen ostean, mozorro kalejiraren txanda helduko da, Bizkarra fanfarreak alaituta. 21:00etan, mozorro txapelketaren sari banaketari ekingo diote, Traña plazan. 22:00etan, Banarte antzerki taldeak *Dudas razonables* antzezlan eskainiko du. Gauean, su artifizialen txanda helduko da, geltokiaren ondoan. Egunari amaiera emateko, kontzertuak izango dira, Traña plazan. Hamaika ikusteko jaiak, Hoax Attack eta Zarpazo a Cicatriz igoko dira oholtza gainera.

Maiatzaren 1ean, domekan, goizetik txahal bat erreko dute Geu Be taldekoek. Txanbolin taldeko txistulariak kalejiran ibiliko dira, eta eguerdian, nekazarien azoka eta herri kirolak egongo dira. Arratsaldean, mosu margoketa tailerra izango dute Kultur Etxean. 17:00etan, San

Prudentzio pilota txapelketaren finala jokatu da.

## Bi asteburuetan ekintzak

Aurtengo jaiak nobedadez beteta datoz. Musika arloan, adibidez, ska eta reggae jaialdia da berrikuntzetako bat. Era berean, maiatzaren 1erako, auzoko gazteek lehenengoz antolatuko dute Gazte Eguna.

## Azoka eta herri kirolak

Jaietako bigarren asteak barikuan ekingo dio, maiatzaren 6an, hain zuzen. Arratsaldean, Txiki merienda, Oliver magoa eta jolasak izango dituzte gaztetxoek. Frontenis txapelketaren finala eta Bertso saioak ere izango dira, iluntzean. Gauean, Luhartz taldeak erromeria eskainiko du, Traña plazan.

## Herriko gazte zein helduentzat hainbat ekintza antolatu dituzte Traña-Matienako jaietan

Zapatuan, Gazte Eguna ospatuko da. Goizean, paella txapelketaren txanda helduko da. Kickboxingeko openak eta Iluntze taldearen dantza ekitaldiak beteko dituzte goizeko ekintzak. 14:00etan, txupinazoa eta herri bazkaria izango dira, Traña plazan, bertako gazteek antolatuta. Arratsaldean, eskulan tailerrak, ugasixo txapelketa, kickboxingeko openaren jarraipena eta Gazte Eguneko jokoak izango dira. Tortilla txapelketa ere arratsaldean izango da. Aurten ere, poney gainean ibiltzeko aukera izango dute gaztetxoek, merkatu plazan. Elektrotxaranga giroa alaituko du ilundu baino lehen. Gauean, su artifizialak, Danny Meip, Onda Futura eta Ze Esatek-en kontzertuak eta playbicka izango dira.

Maiatzaren 8a, igandea, festen azken eguna izango da. Goiza ludoteka, xake erakusketa eta pintxo dastaketarekin hasiko da. Jaizalek eta Done Zezili abesbatzak kontzertua eskainiko dute jubilatuen bazkariaren aurretik. Ondoren, mus txapelketa eta jaialdia egongo da, plazan. Jaien amaiera 20:00etan helduko da, Donien Atxa kenduta.



Iluntze dantza taldeko dantzariak, iaz, jaien hasierako erakustaldian.



Hainbat auzotar batu ziren iaz Donien-Atxa altxatzeko ekitaldian.



Fanfarreak alaituko du jaietako hasiera ofiziala ematen den ekitaldia.

Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu  
abadiñar guztioi!

TERRAZAK ETA LORATEGIAK  
MOMENTU PAREGABEAK



## Gazte Egunaren barruan playback lehiaketa da aurtengo nobedadea

Horrez gainera, bazkarirako txartelak gehitu dituzte, inor kanpoan geratu ez dadin

**> GAZTE EGUNA** J.Derteano Iaz hasitako bideari jarraituz, Traña-Matienako Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatuko du maitzaren 7an. Aurtengo

nobedadeetako bat gaurdian egingo duten playback lehiaketa izango da.

Aurtengo egitarauari eskaintza berria gehitu diote playback

lehiaketagaz: “Iazko bazkari, poteo eta jolasez gainera, zeozer desberdina eta berria eskaini gura genuen”, dio Alex Cuesta Gazte Asanbladako kideak. Parte-hartzaileek abesti eta abeslari ezagunen imitazio edo antzeppen pertsonalak egingo dituzte, horretarako apropos jantzita: “Umorez betetako ekintza izango da”.

Gaurdian hasi eta 1:00 arte egingo dute, plazako eszenatokian. Izen-ematea aurretik egin beharra dago helbide elektronikoko ([playbacksanprudentzia@gmail.com](mailto:playbacksanprudentzia@gmail.com)) edo WhatsApp bidez: 685 762 888.

**Ze Esatek! taldea zuzenean** Playback-aren aurretik eta atetik, musika kontzertuak egongo dira. 22:00etatik gaurdina arteko bi orduak DJ Danny Meip matienarraren musikak beteko

### Ze Esatek! eta DJ Danny Meip-en musika kontzertuak ere izango dira

ditu. Lehiaketaren ostean, Ze Esatek! taldearen rock, reggae eta ska doinuek hartuko dute Traña-Matienako plaza. Gazte Asanbladan bozketa egin zuten zein talde ekarri erabakitzeke, eta Ze Esatek! taldeak lortu zuen boto gehien.

**Bazkaria, plaza mugatu barik** Iaz, 200 lagunentzako tokia izan zuen Gazte Eguneko bazkariak. Txartel denak saldu zituzten, eta batzuk kanpoan geratu ziren, tokirik barik. 200 txartel jarri zituzten eskuragarri, bazkari kopuru hori bermatu zeza-

ketelako. Aurtun, muga hori ezabatzea lortu dute, eta gura duten denak joan daitezke bazkarira. Txartelak domeka honetara arte —apirilak 24— daude eskuragarri, Mesoian eta Taberna Zarran. Bazkalostean, 17:00etan, Gazte Olinpiadak egingo dituzte plazan eta, ondoren, poteoan irtengo dira elektrotxaranga batek lagunduta.

### Lokaletatik kalera

Traña-Matienako gazteak iaz hasi ziren lehenengoz batzartzen Gazte Eguna antolatzeko. Baina gune berri horrek epe luzera begirako beste helburu bat ere bazuen: Gazte Asanblada sortzea. Gazteak modu koordinatuan egituratzeko lehen saiakera baliagarria izan zen Gazte Eguna antolatzeko, baina jaien ostean indarra galdu zuen. Sustatzaileek bigarren ahalegina dute aurtengoa, iazko akatsetatik ikasita: aurtun, ordezkari finkoak izendatu dituzte lokal bakoitzak, eta horrek konpromiso maila handitu du. Ordezkari eta maiztasun egonkortuagaz “iritzi trukaketa aberatsagoa da eta batuago gaude” dio Cuestak.



Aurtun Gazte Eguna antolatzen dabiltzan gazteak.



**ELECTRICIDAD**  
**ANBOTO S.L.**

**AUTOMATISMOAK-HARILKATZEAK**  
**ELEKTRIZITATE-INSTALAZIO INDUSTRIALAK**  
**AUTOMOZIOARAKO ETA INDUSTRIA-ELEKTRONIKARAKO KABLEATZEAK**

Trañapadura industriagunea,  
C pabiloia, 5. lokala  
48220 MATIENA - ABADIÑO (Bizkaia)

Tel.: 946 812 433  
Faxa: 946 810 996  
[www.electricidadanboto.com](http://www.electricidadanboto.com)



**TONO**  
**ALBAÑILERÍA**  
Igeltserotza orokorra  
Etxebizitzaren zaharberritzeak  
Merkataritza-lokalak  
Baserriak

**GREMIOEN**  
**KOORDINAZIOA**

686 420 383  
946 202 565

**Cafetería**  
**Oxford**



*ondo pasa jaietan!*

Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 818 884 (Bizkaia)





Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapelduna izandakoa da.

## Elortza, Lujanbio, Uria eta Peñagarikanoren bertsoak

Maiatzaren 6rako ipini dute bertsoaren hitzordua aurtengo jaietan

**> BERTSOLARITZA** M. Onaindia  
Ez dago ganorazko jairik bertso saiorik barik. Traña-Matienako jaietan ere bertsolaritzaz gozatzeko ohitura handia dute, eta urteroko zita garrantzitsu bat izaten da herriko zein inguruetako bertsozaleentzat. Aurtengo jaietarako, maiatzaren 6an ipini dute bertsoaren hitzordua. Igor Elortzak, Maialen Lujanbiok, Jone Uriak eta Anjel Mari Peñagarikanok egingo dute bertsoan, Errota kultur etxean, 22:00etatik aurrera.

**Berriozabalen esanetara**  
Bertsolariek Maite Berriozabal gai-jartzailearen aginduetara kantatuko dute jaietako bertso jaialdian. Belaunaldi desberdinetako bertsolariak dira lau-

**Maite Berriozabal gai-jartzailearen aginduetara kantatuko dute**

**Adierazi dutenez, pertsonako bi sarrera emango dituzte**

rak, baina denak oso ezagunak bertsoaren panorama zabalean. Peñagarikanoren piperra eta gatza, Lujanbioren sakontasuna, Elortzaren dotorezia eta Uriaren freskotasuna nahastuko dira saioan zehar. Bertsoza-

leentzat disfrutatzen aukera bikaina izango da, beraz.

Bertso saioaren ostean, Luhartz taldearen erromeriagaz jarraituko du jaiak, Traña plazan. Horrela, bertsoetik dantzarako saltoa emango dute jaizaleek.

**Sarrera, mugatua**

Saioa areto barruan izango denez, sarrera kopuru mugatua egongo da. Ondorioz, gonbidapen-txartela hartu beharko dute interesdunek. Maiatzaren 2tik aurrera eskugarri egongo dira txartel horiek, Errota kultur etxean bertan.

Jaietako antolatzaileek adierazi dutenez, pertsonako bi sarrera emango dituzte, gehienez jota.

## Goi mailako herri kirol saioa Bihurri, Txikon eta Perurenagaz

Herri kirol erakustaldia maiatzaren 1ean egingo dute, 12:00etatik aurrera

**> HERRI KIROLAK** M. Onaindia  
Maiatzaren 1ean herri kirolen erakustaldi erakargarria burutuko dute Traña-Matienako jaietan. Goi mailako parte-hartzea edukiko du, kirolari oso ezagunak joango baitira: Bihurri, Alex Txikon, Inaxio Perurena, Hodei Ezpeleta eta Julen Mendieta.

Traña plazan egingo dute erakustaldia, 12:00etatik aurrera. Alex Txikon alpinistak bere ohiko laneko jantzia aldatu, eta aizkora eskuan hartuta osatuko du lana. Inaxio Perurenak aitaren ofizioan jardungo du, harri-jasotzen, hain zuzen ere. Bihurri, ostera, perimetro handiko enborretan espezializatutako aizkolaria da, eta hainbat mailatan munduko errekorra ere hautsi

izan du. Urte luzez ikuskizun ugari eskaini izan ditu Euskal Herrian zehar.

**Semea ere bai**  
Bitxikieria lez, Bihurriren semeak ere parte hartuko du

**Laneko jantzia aldatu, eta aizkora eskuan hartuta osatuko du lana**

**Inaxio Perurenak aitaren ofizioan jardungo du, harri-jasotzen**

jaialdian: Hodei Ezpeletak. Aizkolaria gaztea izan arren, plazetan esperientzia duen mutila da. Julen Mendieta ere aizkora ibiliko da.

**Txapelketa ugari**

Herri kirolez gainera, herritarren arteko txapelketa ugari ere prestatu dituzte jaietarako. Esate baterako, maiatzaren 7an, ugaxo txapelketa burutuko da merkatu plazan, 16:00etatik aurrera.

Bestalde, egun berean, paella txapelketa egingo dute merkatu plazan, goizean zehar. Gastronomiagaz jarraituta, eta hilaren 7an ere, tortilla txapelketan ere parte hartzeko aukera egongo da. 17:30ean hasiko da lehian keta hori.



Bihurri perimetro handiko enborretan da espezialista.

**LATEX ERROTULUAK**  
**ROTU-NET**  
[www.rotunet.net](http://www.rotunet.net)

**Gisasola Pentsuak**  
- EKO GARDEN -  
Ortuko landareak urte guztian

- Pentsuak - Pentsu ekologikoak - Haziak -
- Etxeko animaliak - Txoriak - Loreak -
- Arrain tropikalak - Dortokak - Kaiolak -
- Indiolar, oilo eta oilaskoak -
- Nekazaritzarako burdindegiko produktuak -
- Lorezaintzako produktuak -

Trañabarren, 27  
Matiena-Abadiño  
Tel.: 946 816 687

**Pinilla**  
HARATEGIA-URDAITEGIA  
Tel.: 946 815 127 · Trañabarren, 29 · MATIENA - ABADIÑO

**Talleres Serafín S. Coop**  
Elorriagar, 11 MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 814 807

# Apirilaren 30ean, jaietan estreinatuko du Banarte antzerki taldeak 'Dudas razonables' obra berria

Errota kultur etxean eskainiko du Abadiñoko taldeak, apirilaren 30ean, 22:00etan, 'Twelve angry men' obran inspiraturiko lana



Entseguetan topatu ditugu astean Banarte taldekoak, Errota kultur etxean.



Javier Obregon durangarren eszenografia dauka antzezlanak.

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Rafa Herce kideak idatziriko testua dauka Banarte antzerki taldeak Abadiñoko San Prudentzio jaietan estreinatuko duen *Dudas Razonables* antzerki obrak. Reginald Rosek idatziriko *Twelve angry men* istorioa oinarri hartuta sortu dute, eta obra hura bezala, iritziak bizipenetatik banatzeko daukagun ezintasunaz mintzo da Banarteren antzezlanak. Objektiboak izateko ezintasunaz dihardute Banarte antzerki taldekoek: gure eguneroko bizitzetan aurreiritziek duten lekuaz ohartarazi gura dute ikuslegoa antzezlan berriagaz.

Reginald Rosek 50eko hamarkadako AEBetako egoera islatu eta heriotz zigorra kritikatzan bazuen ere, Abadiñoko Banarte antzerki taldeak "norbanakoen eta euren egoeretan" ipintzen du arreta. Rafa Herce *Dudas Razonables* obraren testuaren egilearen berbetan, "ispilu bat ipini gura dugu ikuslearen aurrean, eta bere burua islatuta ikusten duenean, publikoa bere buruari galderak egitera bideratzea: zer egingo nuke nik egoera horretan banengo?". Jendeak bere buruari horixe planteatzea gura du Banartek.

Sententzia herri-epaimahai batek emango duen epaiketa bat da *Dudas razonables* antzezlaneko istorioaren kokagunea.

**Rafa Herce eta beste zortzi aktore daude oholtzan**

**Aurreiritziek duten garrantziari buruzkoa da Banarteren obra**

Banarteko kideek azpimarratu dutenez, "justizia egin ahal izateko, objektiboak izan behar lukete epaimahaiko kideek, eta itxuren eta errealtatearen artean bereiztu". Baina *Dudas Razonables* antzezlanak erakusten duen bezala, epimahaikoek objektiboak izateko duten ezintasunak ezinezko egingo du epaiketa bidezkoa izatea.

**'Twelve angry men' obra du antzezlanak inspirazio iturri**

**Javier Liñerak zuzendu du 'Dudas razonables'**

Antzerki obraren testua idatzi duen Rafa Herce eta beste zortzi aktorek dihardute oholtzan *Dudas razonables* obran, Javier Liñeraren zuzendaritzapean: Aitor Coello, Rosane Mateo, Loli Reñón, Dolma Romera, Isabel Rodríguez, Eduardo Falces, Eduardo Pombar eta Idoia Bilbao dira, Hercegaz batera, *Dudas razonables* antzezlaneko gainerako aktoreak.

Javier Obregon durangarrak prestatutako eszenografia dauka Traña-Matiako San Prudentzio jaietan estreinatuko duten antzezlanak. Musika Aitor Coellok sorturikoa da, eta jantziak, bestalde, Iolanda Iriondok egin ditu.

Abadiñoko Udalak, EITBk eta Belategi armategiak babestu dute Banarte antzerki taldearen proiektu hau. Estreinaldia Abadiñon egin eta gero, antzerki lana han-hemen erakutsiko dute: maiatzaren 28an, Campos Elíseos antzokian eskainiko dute.

**VANCOUVER**
  
 Bar - Cafeteria
   
 Askotariko pintxoetan espezializatuak
   
 Rabak asteburuetan eta jaiegunetan
   
 Trañabarren Etorbidea, 9 • MATIENA
   
 Tel. 94 681 70 39

**Durangaldeko Baserritarren Elkarte**
  
  
**DUBA**
  
 Murueta, 6
   
 Tel.: 946 818 792
   
 48200 Abadiño

**BODEGUILLA**
  
  
**TRAÑA-MATIENA**
  
 Tel.: 94 681 43 85



# Geu Be-ko kideek botako dute txosnaguneko txupinazoa

Geu Be elkarteko gazte abadiñarrak izango dira, aurten, San Prudentzioetako txupinazoa botako dutenak

**> TXUPINAZOA** M. Zuazubizkar San Prudentzio jaiak eguaztean hasiko dira, apirilaren 27an, Donien Atxa jasota, baina txosnaguneko barikuan eman go die hasiera 2016ko Traña-Matienako jaiak, apirilaren 29an. Aurtengoan, Geu Be elkarteko gazte abadiñarrak izango dira txupinazoa botako dutenak. “Oso pozik gaude, guretzat ohore bat da jaiak hasiera ematea”, adierazi du Jon Guerrerok. Jaietan protagonista izango diren gazteek aitortu dute bakoitzak bere etxean entseatzeko duela, dena ondo irteteko eta momentua disfrutatzeko.

## Prestaketa lanetan

Pozez zorutzen dabilzan arren, oraindik txupinazoa nola bota, zer esan... prestatu gabe dute. Jose Alfaro koordinatzailearen hitzetan, “gazteek beraiek erabaki behar dute zer eta nola

egin nahi duten”. Beraz, gaur, barikuro izaten duten gazteen batzordean erabakiko dute zer egingo duten jaietako lehen ostiral horretan. Iban Rodriguez laguntzailearen hitzetan, eurek “lagundu egingo” diete gauzak prestatzen, baina erabaki “garrantzitsuak” protagonistek eurek hartuko dituzte. Argi dute guztiak egun hau “egun handia” izango dela, eta beraz, zerbait

**Ilusio bereziaz itxaroten dute txupinazoa Geu Be-ko gazteek**

**Maiatzaren 1ean, azken 11 urteetan bezala, txahala erreko dute**

“polita” egiteko asmoa dutela aurreratu dute.

## Atzera kontaketa

Txupineroak izango zirela jakin zutenetik, atzera kontaketa dabilta gehienak. Diego Lopek, esaterako, jakin zuen momentuan, apirilaren 29a margotu egin zuen egutegian, eta egunak ezabatzen dabil harrezkero. “Ilusio berezia egiten dio Diegori egun horrek. Bere kuadrillakoak oso txosneroak dira, eta bere lagun aurrean bera txupineroa izatea izugarria da berarentzat”, adierazi du Ana Nievasak, Diegoren amak.

Iban Rodriguez laguntzaileak ere ez du ilusio txikiagoa. Rodriguez urtero ibiltzen da jaietan murgilduta, hainbat ekitalditan laguntzen. Aurtengoan, Geu Be-ko kideen ondoan egon ahalko da txupinazoaren momentuan. Rodriguezen hitzetan, gazteekin

parte hartzea “mundiala” da. Eta momentu hori denentzat “oso berezia” izango dela aitortu du.

## Urteroko zita

Txupinazoaz gain, urteroko zitarako ere gogotsu daude Geu Be-ko kideak. Hau da, txahala erreko duten egunerako.

2005az geroztik, udalak proposamena mahai gainean jarri zientetik, San Prudentzio jaietan txahal bat erre eta pintxoak salgai jartzen dituzte Geu Be-ko kideek, Trañako plazan.

Maiatzaren 1a egun handia izaten da gazte, familia, koordinatzaile eta laguntzaile guztiarentzat. Lana egin behar izaten duten arren, guztiak batera “ondo” pasatzeko egun bat izaten dela adierazi dute familiarrekoek. Aurtengoan jaiak modu berezi batean biziko dituzten gazte hauek “herritarrek jaietan ondo pasatzea eta, denek batera, berdintasunean disfrutatzea” nahi dute.



lazo jaietan ere Geu Bek txahala erre zuen.

**neumáticos**  
**ETXEBARRIA**

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marke guztiak) - Freno-pastillak - Amortiguadoreak

**MICHELIN** **BFGoodrich** **BRIDGESTONE** **Firestone**

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO  
(Hiper Eroskiren ondoan)  
Tel.: 946 232 520 - Faxe: 946 203 622  
[www.neumaticosetxebarría.com](http://www.neumaticosetxebarría.com)

**VIA LIDER**





**B A U T I S T A**  
MUEBLES Y DECORACIÓN  
LAUDIO - ABADIÑO

# Bautista Sukaldeak



Kanpaina berezia  
**%30era arteko deskontuak**

**Zure erosketa %100 finantzatzen dugu sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe 10 kuota eta 3 hilabeteko gabezia Lehenengo kuota irailean**

[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)

[info@bautistamuebles.com](mailto:info@bautistamuebles.com)

 94 672 77 00

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO  
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)

**> LITERATURA** Itsaso Esteban  
Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, askotariko ekintzak antolatu dituzte Durangaldeko kultur etxe, liburutegi eta liburu-dendek. Durangoko Arteka, Urrike eta Hitz liburu-dendek, esaterako, euren dendetako apaletatik kalera aterako dituzte liburuak: Andra Mariko elizpean egongo dira, bihar, 16:00etatik aurrera, eta deskontu bereziak ezezik, lore bana ere emango diete opari erosketaren bat egiten dutenei. Tailerrak eta ipuin kontalaritza saioa ere eskainiko dituzte hiru liburu-dendek, elkarlanean.

Eskulan tailer batez eta ipuin kontalaritza saio batez ospatuko dute Liburuaren Nazioarteko Eguna, Berrizen: pertsonaia mitologikoen txo-txongiloak egingo dituzte, bihar, 17:00etan, eta 19:00etan hasiko da ipuin kontalaritza saioa.

Elorrion, Oihana Etxegibelen ipuin kontalaritza saioa izango da umeen liburutegian: 17:00etan, hiru eta bost urte artekoentzat arituko da; 17:30ean, sei eta bederatzi urte artekoentzat.

#### Liburuak kalera

Elorrion eta Durangon, *bookcrossing* delako ekimena burutuko dute, Liburuaren Egunaren harira. Elorrion, 25 liburu aterako dituzte Liburutegitik, eta herriko hainbat lekutan utzi-



Nahi duenak irakurtzeko har ditzan, herriko hainbat txokotan ipiniko dituzte liburuak jendearen eskura.

## Apaletatik kalera aterako dituzte liburuak, Durangon eta Elorrion

Apirilaren 23ko Liburuaren Egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte

ko dituzte, herritarrek irakurri ondoren, beste norbaiten eskura uzteko, berriro kalera bueltatu ditzaten.

Durangoko Liburutegian ere beste horrenbeste egingo dute, eta parte hartu gura duten guztiak egin diete proposamena, kalean utziko duten liburua *www.bookcrossing.com* webgunean erregistratu eta parte hartzeko.

Liburuaren Egunaren harira Elorrion antolatu duten pro-

'Bookcrossing' delako ekimenagaz bat egin, eta 25 liburu apaletatik kalera aterako dituzte Elorrion

gramazioa amaitzeko, irakurle klubek hitzorduak izango dituzte, apirilaren 27an. Euskarazko irakurle klubekoek Kar mele Jaioren *Orain hilak ditugu* liburua hartuko dute ahotan. Gaztelaniazko irakurle klubean parte hartzen duten literaturzaleek, bestalde, Irati Jimenez idazlearen bisita jasoko dute, *Nora* bere liburuaz aritzeko.

## Azkarate eta Altube arituko dira Ondarroako etziko saioan

**> BERTSOLARITZA** I.E.

Apirilaren 24an, 17:30ean, Ondarroako Beikoizini antzokian egingo duten Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren laugarren kanporaketan Peio Azkarate durangarrak eta Txaber Altube abadiñarrak kantatuko dute. Durangaldeko bi bertsolariekin, Iker Garitagoitia, Iñaki Iturriotz, Mikel Retolaza eta Nerea Ibarzabal bertsolariak ere arituko dira saio horretan.

Apirilaren 24an, 17:30ean, Ondarroako Beikoizini antzokian egingo dute laugarren kanporaketa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udaberriko Fase honetako hurrengo saioa Derion jokatuko dute, apirilaren 30ean. Bederatzi saiokoa da Udaberriko Fasea, eta bosgarrena izango da Deriokoa. Hitzordu horretan ere egongo da Durangaldeko ordezkariarik kantuan: Xabier Irakulis zornotzarrak parte hartuko du.

## Kukai eta Tanntakaren 10 urteko elkarlanaren isla den ikuskizuna

'Hazipenen pozak' ikuskizuna eskainiko dute, apirilaren 29an, Zornotzan



Jon Mayaren koreografia lana du ikuskizunak.

**> DANTZA** I.E.

Mireia Gabilondok zuzenduriko ekoizpena da Kukai eta Tanntaka dantza taldeek elkarlanean sortu eta duela urtebete estreinatu zuten *Hazipenen pozak*. Jon Maya dantzariaren koreografia lana du ikuskizunak.

Apirilaren 29an dantzaren nazioarteko eguna ospatzen dela gogoan hartuta programatu dute Kukai eta Tanntaka taldeen elkarlanaren emaitza, Zornotzan. Joan zen udan, herriko jaietan, kalean egitekoak ziren *Hazipenen pozak* ikuskizun

honen emanaldia, Zornotzan, baina euriaren eraginez bertan behera utzi behar izan zuten saioa. Zornotza Aretoko arduradunek esan dutenez, datorren astean eguraldiak emanaldia herriko plazan egitea eragozten badu, Zornotza Aretoko barrura igaroko dute hitzordua.

#### Lokalean bezala

Kukai eta Tanntaka dantza taldeek azken hamarkada honetan elkarrekin egin duten lanaren erakusle da *Hazipenen pozak* ikuskizuna: hamar urte hauek sortu dituzten koreografia esanguratsuenen zatiak batuz sortu dute ikuskizun hau, eta dantza taldearen entsegu batean, lokalean lanean baleude bezala jardungo dira sei dantzari emanaldian zehar.

Alain Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte, Jon Maya, Nerea Vesga eta Urko Mitxelena dira ikuskizuneko dantzari zerrenda osatzen dutenak.

## 'Antropía' erakusketa ipini du Urtzi Cantok Durangon

Urtzi Canto (Bilbo, 1984) artistaren lanak beteko du, apiril bukaerara arte, Durangoko Museoa

**> ARGAZKIGINTZA** I.E.

Durangoko Arte eta Historia Museoa dago Urtzi Canto artista bilbotarraren *Antropía* erakusketa. Apirilaren 1ean zabaldu zuen, eta 30era arte egongo da artista gaztearen lana ikusteko aukera, Durangon. Arte Ederrak ikasi zuen Cantok, argazkigintzan espezializatuz, eta, besteak beste, arlo horretan burutzen duen lanaren erakusle da Durangoko bere bilduma.

Erretratuak dira erakusketako 16 argazkiak, 60x90 zentimetroko neurrikoak. Egilearen berbetan, ikuspuntu antropologiko eta paisajistikotik landutako irudiak dira *Antropía* proiektu honetakoak. Egilearen berbetan, "gainazalitik sakonera, erretratuaren esentziara" zaramatzate erakusketako argazki analogikoak.

Bilbao Arte fundazioak aurtien eman duen produkzio beka jaso du Urtzi Cantok. 228 propo-

samen jaso dituzte diru-laguntza deialdi horretan, eta beraien proiektua gauzatzen laguntzeko aukeratu dituzten 30 artistetako bat da Urtzi Canto. Beste hiru kidegaz aurkeztu duen egitasmoa da Bilbao Arte fundazioak hautatu duenarteko bat.

Inpresioaren arloko ikasketak ere burutu zituen Urtzi Cantok, eta Bizkaiko Arkeologi Museoko piezen erregistroa egiten ere egin izan du lan.



# IRAKURKETA OHITURAK

## ▣ PRAKAGORRI

Ikasle eta helduek irakurketaren esparruan lortutako ohi-turetariko asko burutzapen propioz barneratutako jakintza pertsonalen eremuan kokatzen dira eta horrez gain inolako irakasbiderik gabeko ekintza izan den heinean, ikuspegi horretatik behintzat, norbere erdiespenez eskuratutako ikaskuntza izan dela esan beharra dago.

Izatez, salbuespen oso gutxi batzuetan besterik ez da liburuak nola irakurri behar diren irakasten. Bestalde, abiadura handiz eta ulermen maila jasoz irakurtzeko metodologia eta irakaskuntzak, egon dauden arren, ez dira inoiz irakasten eta irakasteko aukerak azaltzen direnean ez da, hainbatetan, irakurtzen dakigunaren aitzakia adieraziz, garatu nahi izaten. Irakurketari ematen zaion garrantziaren seinale.

Zoritxarrez, gorago aipatutako guztia liburua egokitasunez nola irakurri behar den benetan dakiten pertsonak oso gutxi direlako gertatzen da eta, tamalez, ikasleen zoritxarretatik, ez da abiadura handiz, ulermen jasoz eta arreta maila garrantzitsu eta kontzentrazio bikainez irakurtzen irakasten. Aipatutakoaren ondorio zuzena, ikasketetan orokortuta dagoen emaitza bikainak izateko ezina. Ikastetxeetako irakasleek eurak ere sarritan, aitortzen ez duten arren, irakurketa maila motelaren jabe dira eta ulermen maila ertain-xumea dutela gogoan izanez, irakasten den irakurketarako metodologia zaharkituaren bidez ikasleei gerora mesede baino kalte gehiago ekarriko dien irakurketa-prozesuak dira, zoritxarrez, irakasten dizkietenak.

Egun heldu diren gizasemeen irakurketa-ohiturek ikaskuntza enpirikoaren bitartez edota kasualitate hutsez lortu dira. Eta, esatea mingarria bada ere, ikasketa bidean diren egungo belaunaldiak errakuntza berdina egiten jardunaz dihardute eta, ondorioz, irakurketaren irakaskuntzari dagokionez ez da inolako aurrerakuntzarik egin. Onartzea oso zaila den arren, horrela da.

Ikasleek, euren ikasketa maila eta adina gorabehera, gabezia garrantzitsu gehiegi dituzte buru belarri sartuta diren heziketa-prozesua egokitasunez garatu eta eremu pertsonalean zein ikasketa mailan arrakasta handia izateko. Aipatu gabezia horien ondorio zuzena... ikasketetan emaitza txarrak, etekin gutxi eta etsipen handia jasatea izaten da. Guzti horretatik, gai-

nera, arazo asko, larri eta maila guztietan eragina dutenak erartortzen dira.

Gabezia horien artean, adibide gisa, ondorengoak aipatu ditzakegu: irakurketa ikaragarri geldoa, egun irakasten den irakurketa metodologia eta sistema zaharkitu eta desegokiak eragindako ulermenik eza nabarmena, atentziorik eza garrantzitsua, kontzentrazioa eragozpen eta arazo larriak, edukiak barneratzeko motibazioa ez esanguratsua, ikasketarako teknika eraginkorrik ez izana, eskolaz kanpokoak diren ekintza askotan (sarritan denbora eta energia asko xahutu ondoren hasi eta gutxira bertan behera uzten direnak) ibiltzea, hainbatetan jarduera horiei asteko ordu-kopuru gehien eta hoberenak eman izanak ikasketaren eta ikasketa ohituren sustraitze eta barneratzean kalte nabarmenak ekarri... eta bestalde, idazkeran bakarrik ez eze, kontzeptuak, ideiak eta barne gogoetak besterenganatzeko ezinbestekoa den ahozko adierazpen eta azalpenerako gaitasunean ere gabezia handiak azaltzen dituzte, jarreretan ere zer aldatu asko izaten dela.

Irakurlerik gehienak, orain arte izandako urte luzeetan zehar lortu izan duten irakurketa-ohiturak euren ikas-sisteman txertatu dituzte eta, hortik aurrera, irakurketarako duten aukera bakartzat jo dezakegu. Beraz, egun gizaseme bakoitzak duen irakurketarako ohiko eredu, etengabe, sistematikasunez eta era ez kontzientean orain arteko urteotan erabilitako ohitura-multzo (gehienetan desegokiak) izatera iritsi da.

Helduek, oro har, helduaroan jakintza maila zabaldu eta ugartzeari, garapen pertsonalean etengabe hobetzen joateko asmoari, trebetasun eta gaitasun berriak lortu eta ikasteko ahalginari, (nahiz eta seme-alabei aipatu jarduera eta jarraibide horiek etengabe eskatu) garbi uko egiten diote. Ahalegin intelektualak egiteari, norbere muga intelektualak gainditzeko behar den esfortzu eta jarraituko ahalginari, gehiago egiten die nagiak eta erosotasunak.

Gure gizarte honetan etengabeko esfortzuaren, ahaleginaren eta ia ezintzat jo daitezkeen helburuak lortzeko behar den jarrera eta gogoak eskatzen duen kemena eta bidean izan daitezkeen eragozpenak gainditzeko joateko jarrera eta agoñua... erabat desagertu dira.

Ahaleginik gabe ez dago aurrerabiderik, ez dago norbere nortasunaren oinarri eta zuta-

beak jartzerik, eta ondorioz, elementu horiek norbere nortasuna eta izaera gauzatu eta eratzen duten heinean, ez da ekintza zuzenaren izate modua osatzen duen doa etikoa lantzerik izaten.

Doa mota bi daude: dianoetiko eta etikoa. Gai horretaz beste idatzi baten gehiago sakonduko dudun arren, lehendabizikoa, funtsean irakaskuntzan sortu eta garatzen da, eta ondorioz, eskarmentua eta denbora behar ditu. Gure bizitzan lehenengo eta behin gaitasunak barneratzen ditugu eta gero ekintzetan aritzen gara. Ez dago zerbaitean gaitasunez jarduterik alde aurretik dena delako jarduera horretarako dagozkion trebetasunak barneratu ezik.

Egungo gizartean ahalegina, agoñua, kemena eta jarrera baikorra erabat desagertuta daude

Ondorioz, doa natural guztietan lehendabizi gaitasuna lortzen dugu eta gero garatzen ditugu ekintzak. Bertuteak alde aurretik gauzatutako jardueren ondorio dira. Gaitasunez jabetu ondoren egin behar dena ez da eginez ikasi eta hobetu baino besterik.

Horren harira, irakurketa maila jasoa lortzeko lehendabizi eman beharreko urratsa irakurketa metodologia berria barneratu, asimilatu eta gaitasun hori nork bereganatzean datza eta ondoren...ekinaren bitartez ikasi eta hobetu.

Ohikoa da baina norbere erosotasun-eremutik at aritu eta jarduteak esfortzu eta gogo handia eskatzen duela ikusten

denean, sagaitu eta ekin beharrean, helduen gogo gehienetan ahulari soraiotasunak edota utzikeriak gehiago egiten diola antzematea.

Nagiak gaina hartzen digu behar baino gehiagotan eta hori ez da ekintza zuzenerako doa etikoz jardutea. Helduaroan ikasten jarraitzeko beharko litzatekeen maila intelektualaren eraberritzerako jakite gogoia etengabe landu beharko genuke.

Jarraituko ikasketak, denbora asko, eskaintza maila handia, norbere konpromiso sakona eta ahalegin ugari eskatzen du eta helduek ez dira, gehienetan, horrelakorik egiteko gogoz izaten. Helduak euren kontzientziaren ahots deserosoa lasaitzeko asmoz, euren zuribiderako edo, antzuak besterik ez diren eta arrazoi modura ontzat hartu ezin daitezkeen "denborarik eza" bezalako arrazoi xebreak adieraztera ematen dute egin nahi izango lituzketen ekintzak ez egiteko.

Irakurle eraginkorra izatea jarrera kontua besterik ez da. Metodologia berriak baitaratze borondate, ilusio, kemen eta jarreraren jabe izatean datza eraginkorra izatea. Irakurle eraginkorrek batz besteko irakurleak baino hiru edo bost bider azkarrago irakurtzen dute. Horretarako baina, lan asko, ordu ugari, ekintza luze eta jarraituko ahalegin asko egitea da bidea, ezer edo gutxi egindako ahaleginaren ondorioz ez baita emaitza bikainik lortzerik.

Irakurle eraginkorrek, irakurketa maila oso jasoa dute, irakurgai osoan zehar begi-mugimendu leuna, kadentzia erregularra, dute. Idazki edota liburuetan atzerakada edota berrirakurketa oso gutxi egiten dute. Ikusmenaren kokapena beti da zehatza, alde aurretik irakurketa eraginkorrerako metodologian ikasitako begi jauzira teknika erabat barneratuz

jauziak zehatz ematen ikasten baita, ohiko irakurketan ez bezala.

Halaber, ikus-eremu periferikoaren esparru zabalagoa izaten da eta horrela jasotako informazioa askoz ugariagoa da. Irakurle eraginkorrek ez dute buru-barnean edota ezpainen bitartez hitzik berrirakurtzen.

Irakurle bikainak, bestalde, ikuspegi sistematikoa eta irakurgaiaren zailtasunaren arabera egokigarria den irakurgaitasuna (beti ere goi mailako ulermenezkoa) dute. Irakurle azkarrak, gainera, arreta, kontzentrazio eta memoria maila jasoa izaten ditu.

Agian zuk ere, artikulua honen irakurle, goian aipatu ditudan ohituretariko batzuen gabezia zure irakurketa-esperientzian antzematerik izan dezakezu. Ohiturak, denboraren joanean guztiz oharkabeko jarraibide izatera bihurtu diren errepikapenaren bitartez ezarritako jokabide-moldeak direnez, ordezkatu egin behar dira. Lehenbailehen...hobe.

Eraginkorrek ez diren ohiturak (ohiko irakurketa besteak beste) ordezkatu egin behar dira. Irakurketa-ohitura zaharkituak, gogoratu ezazu, luzaroan zure irakurketa-ohiturak izan dira eta, ondorioz, beste eraginkorrerako batzuk ezartzeko, gutxienez, egin beharreko lanak erantzukizun, denbora eta jarduera etengabea eskatzen du.

Irakurle alfabetatu funtzionalak bakarrik izatea ez dute inolako helburu gisa hezikuntza sistemak eta irakasleak izan behar euren jardun eta eremuan. Benetako helburua irakurgaitasun jasoa, bikaina, duten irakurleak heztean datza eta helburu horretan guztiok dugu, bakoitzak bere esparruan, erantzukizun zuzena.

**Gorka Aurre**  
prakagorri@prakagorri.es



**PRAKAGORRI**

Reading skills

Tel.: 944 915 763 · prakagorri@prakagorri.es

**irakurri 4 ALDIZ ARINAGO**  
**EMAITZA HARRIGARRIAK !**

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermena!  
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.  
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure seme-alaben urtenbide

Lain Garcia Calvo | Coach-a | Bartzelona (Katalunia), 1983

# “Fisikoa bezain garrantzitsuak dira entrenamendu psikikoa eta animikoa”

Bizitzan hainbat ezbehar gainditu ondoren, coach munduan murgildu da bere hobetze metodoa erakusteko



► **KIROLA** Paul Bustindui Hamabost urtegaraz itolarria eragiten zion gaitza diagnostikatu ziotenean, mundua gainera erori zitzaion. Igerilari izatea ametsa zuen Bartzelonako gazteak bere onena atera zuen aurrera irteteko. Zazpi urtez Espainiako selekzioagaz Europako igeriketa txapelketetan parte hartu ondoren, bizitzari aldaketa bat eman zion bere motibazio eta barne indarra besteei erakusteko ‘La voz de tu alma’ bestseller-a kaleratuz.

Hamabost urte zenituenen, zer sentitu zenuen horrelako gaixotasun baten berri izan zenuenean?

6 urte nituenetik aritu naiz igeriketan, astegunetan hiru entrenamendu saio eginez. Hamabi kilometro inguru, eta asteburuetan, txapelketak. Kataluniako txapelduna nintzen eta Espainiako txapelketetan podiumean nengoen. 15 urtegaraz nekatuta sentitzen nintzen. Medikuariengana joan, eta fibromialgia neukala esan zidan. Gaitz honentzat ez zegoen sendagairik. Kirola eta eskola utzi nituen. 6 hilabetez ez nuen ezer egin.

**Zelan irten zinen ahulgune horrietatik?**

Depresio egoeran nengoen. Ezintasun hari amaiera eman behar nion, eta estualdi horretatik irten. Gurasoei esan nien Espainiako txapelduna izan nahi nuela, eta hori lortzeko egin ahal nuen guztia egingo nuela. Gertatu zitzaidanari buruz ez mintzatzeko eskatu nien lagunei, eta hori egiten zuenak nire bizitzatik alde egingo zuela. Entrenatzaileari ere esan nion horixe zela nire helburu bakarra. Urte eta erdi igaro ostean, Espainiako txapelduna nintzen. 50 metroko estilo libreko eta tximeletako finalak irabazi nituen.

**Behin Espainiako txapeldun izatera heldu zinenen, helburu handiago bat bilatu zenuen.**

Bai. Europako txapelketetan parte hartu nuen, eta lehen zortzien barruan amaitu nuen. Espainiako taldeagaz zazpi urte eman nituen nazioarteko mailan. Espainiako txapelketetan ere urrezko domina gehiago lortu nituen. Azkenean, gaixotasunari gailendu nintzaion, eta horixe izan zen lortu nezakeen txapelketarik politena. Beste era

batera planteatu behar nuen bizitza; azkenean, erronka agertu arte ez dugu gure onena ematen eta aukerarik onena hautatzen.

**Noiz bururatu zitzaizun liburua argitaratzea zure esperientzia pertsonala beste pertsonekin partekatzeko?**

Azkenean, esperientziaz baliatzen gara. Bizitzan izan ditugun momentu txar guztiak dira aurrera egiten laguntzen ditugutenak, horiek baitira aldaketa ahalbidetzen dutenak. Bestalde, garrantzitsua da gure erronkak besteei ere kontatzea. Nire kasuan, behin erronka gaindituta, besteei laguntzea izan da betidanik nire asmoa, eurek ere aurrera egin dezaten. Horretarako, nire bizipenak kontatzen zituen liburua prestatu nuen. Bestalde, munduko *coach* hobereen kurtsoak egin nituen, gerora nik ere lagundu ahal izateko.

**Eta zertan oinarritzen da coaching-a?**

*Coaching*-a, funtsean, pertsona jakin bati egiten zaizkion galderak dira, gogoeten bidez hobera egin dezan. Nire kasuan, *trainertzat* hartzen dut neure

burua, galderen orde ez esperientziak kontatzen baitizkiet pertsonari, horietatik zerbait ikas dezaten. Nire liburua guztiak oso praktikoak dira, irakurtzeaz gain jendea aldaketara bideratuko duten ekintzak jorratzen baitituzte. Azken finean, eragile lana egiten dute.

**‘La voz de tu alma’ zure lehen liburua bestseller bihurtu da oso denbora gutxian. Jendearen erantzun hori espero zenuen?**

Egia esanda, bai, eta oraindik askoz hobea espero dut. Idazten hasi nintzenean, zailtasunak aurkitu nituen. Bizitzan ere, zoz ezberdina hasten dugunean, hainbat traba agertzen dira. Ez zegoen argitaletxerik liburua argitaratu nahi zuena. Baina nire ametsa hau aurrera ateratzea zen. Horrexegatik, neuk finantziatu nuen tirada osoa, eta horrela, pixkanaka hasi zen ametsa, bestseller bihurtu da. Gaur egun, 100.000 liburutik gora kaleratu ditut.

**Kirola alde batera utzi, eta arlo globalago batera egin zenuen salto?**

Kirolak oinarri asko eman zizkidan. Baina bertatik irteteak ere perspektiba eman zidan, bertan oinarritzen baita bizitzaren funtsa. Azken batean, berdina dira kirolean urrezko domina bat lortzeko printzipioak, enpresa bat aurrera ateratzekoak edo gure bikotekidearekin harreman ona izatekoak.

“Behin nire erronka gaindituta, besteei aurrera jarraitzen laguntzea izan da nire asmoa”

“Domina bat irabazi, enpresa bat sortu edo hartueman bat izateko printzipioak berdina dira”

**Azken urteetan, coaching-ak gorakada handia izan du. Zertan ezberdintzen zarete coach profesionalak?**

Ezer ez dagoenez erregulatuta, badira aste beteko ikastaroak *coaching* titulua lortzeko. Azken finean, baina, *coaching*-a esperientzietatik ikastea da, eta hauek oso pertsonalak izaten dira. Erakutsi beharrekoa metodoa da, gero gure arazoetara aplikatuko duguna. Nik munduko *coach* onenen formazioa jaso nuen, beste perspektiba bat hartzeko. Uda honetan Las Vegasen izan naiz, ekonomia munduko pertsona aberatsengandik ikasteko. Diru asko inbertitu dut, baina jaso ditudan oinarriak funtsezkoak zaizkit gero nik irakasten dudana metodorako.

**Kirolaren kasuan, arlo psikologikoari behar besteko garrantzia ematen zai?**

Ez, bigarren maila batean dago. Kirolak erakutsi didan gauzeta bat da oso antzeko bi kirolari hartzen badituzu —biek prestaketa fisiko berdina egiten dutenak eta entrenatzaile bera dutenak— emaitzak oso ezberdinak izan daitezkeela bietako batek baino ez badu lantzen arlo psikologikoa. Goi mailako kirolean, garaipenaren %90 arlo psikologikoa dago, hau da, gestio emozionalean. Beraz, formakuntza mailetan askoz gehiago sakondu beharko genuke aspektu psikologikoa.

**Asteon, Rafael Nadalek torneo bat irabazi du denbora luze irabazi barik egon ostean, eta bere poztasuna funtsezkoa izan zaiola adierazi du. Zer eragin dauka poztasunak kirolean?**

Garaipena emozioen kontrolan dago. Azkenean, kirolari guztien arrakastan arlo psikologikoa dauka eragin handiena. Dena irabazi duen tenislaria izan arren, denbora asko ibili da Nadal bere jokoaz gozatu gabe, eta horrela ezinezkoa zitzaion partiduak aurrera ateratzea. Orain bere emozioak berreskuratu dituela, mailarik gorenera itzuli da berriz ere. Kirolari guztiekin pasatzen da.

# Gazte mailako pilotaririk onenekin abian da Master Kaiola txapelketa, Zornotzan

Gazte eta 22 urtez azpiko 100 pilotaririk parte hartuko dute; finalak Karmen jaien barruan jokatuko dituzte



Txapelketaren aurkezpen ekitaldiko argazkia antolatzaile, laguntzaile eta babesleekin.

**> PILOTA** J.Derteano  
Iazko estreinaldi arraskatsua-  
ren ostean, Zornotzako Lagun  
Onak pilota elkarteak Master  
Kaiola pilota txapelketako biga-  
rren aldia antolatu du aurten.  
Hiru hilabetez, gazte eta 22 urtez

azpiko 100 pilotari lehiatuko di-  
ra Amorebieta IV pilotalekuan.

Txapelketa lau t'erdian jo-  
katuko dute. Gehienak gazte  
mailakoak izango dira: 64. Gai-  
nerako 34 pilotariak 22 urtez az-  
pikoak dira. Aspe eta Asegarce

enpresek bultzatu eta babesten  
duten txapelketa da, eta Euskal  
Herriko zein Errioxako pilotari-  
rik onenek parte hartuko dute:  
"Aspe eta Asegarceren agendan  
dauden pilotariak etorriko dira,  
Euskal Herriko onenak. Profe-

sionaletarako bidean dauden pi-  
lotariak ikusteko aukera dago",  
adierazi du Iñaki Olabarri txapel-  
ketako antolatzaileetako batek.  
Txapelketak kanporaketa  
sistema erabiliko du. Irabazlea  
hurrengo txandara sailkatuko  
da, eta galtzaileak agur esango  
dio txapelketari.

Partiduak ostiraletan,  
19:00etan, eta igandeetan  
11:00etan jokatuko dituzte. Mai-  
la bietako finalak, berriz, Zor-  
notzako Karmen jaien barruan  
jokatuko dira, uztailearen 23an.

## Asteburuko jardunaldia

Gaur hasiko den bigarren jar-  
dunaldian zornotzar bi aritu-  
ko dira lehian. Lagun Onak  
taldeko Beñat Iturbek Sevilla  
gasteiztarra izango du aurkari  
gaurko hirugarren partiduan.  
Domekan, berriz, Erik Lizundia  
zornotzarrak Pagazaren aurka  
jokatu du.

## ADITUAREN TXOKOA

**UNAI  
ZAMALLOA**

Saskibaloia



## Azken txanpan

Eta batzuk amaituta. Bai, hor-  
rrela da. Ametx Zornotzak  
amaitu du bere denboraldia.  
Ez dago berririk. Denboraldi  
hasiera kaskarrak luze eratu  
du taldearen lana, eta orduan  
espero zena ez da lortu. Le-  
sioek goitik behera eragin  
dute taldean. Baita ere, lesioen  
ondorioz egin diren fitxaketek  
ere, beren ekarpena ez dela-  
ko guztiz ona izan. Dominion  
Bilbao Basketen lesioek ere  
eragina izan dute, jokalaria  
asko izan direlako beraiekin  
entrenatzen. Hori dela eta,  
jokoa lantzeko eta talde lana  
indartzeko betebeharra ezin  
izan da erarik onenean landu.  
Hau guztia kontuan hartuta,  
txalotu egin behar da Mikel  
Garitaonandiaren taldea, ara-  
zoei aurre egin dielako, eta  
konpetizioan ahalik eta gogo-  
rren aritu delako.

Aurtengoa kontuan har-  
tuta, lanean ibiliko dira dato-  
rren urteko taldea prestatzen.

Tabirako Baqueren bi talde  
nagusiek gogor aritu beharko  
dute lanean oraindik. Ligaren  
azken txanpan dabilta talde  
biak.

Igande honetan, bolada kas-  
karra eten dute neskek, alde  
handiko garaipena lortuta Au-  
tocares Alba La Salleren aurka  
(71-41). Beharrezkoa zen berri-  
ro ere bide onean sartzea, liga  
amaitu eta LF-2rako play-offe-  
tan topera aritzeko.

Mutilak topera dabilta.  
Azkeneko hiru partidua jar-  
raian irabazi dituzte, eta lau-  
garren postuan sartzeko au-  
kera guztiak dituzte. Horrela,  
EBArA igotzeko playoffean  
egoteko modua izango lukete.

Ia zelan bukatzen den den-  
boraldia. Jarraitu dagigun  
gogor!

# Bizkaiko Zubia proban parekorik ez Mimenzak

Zatirik handiena buruan eta bakarrik egin zuen



Aitor Mimenza, joan zen asteburuan, helmugara heldu berriren.

**> KORRIKA** J.D.  
Aitor Mimenzak (1991, Elorrio)  
Bizkaia Zubiko maratoni erdia  
irabazi zuen joan zen domekan.

800 parte-hartzailetatik batek  
ere ezin izan zuen estutu. Ha-  
sieratik lasterketa hausteko  
asmoagaz denak emanda hasi

zen, eta taktika ezin hobeto ir-  
ten zitzaion. Bakarrik egin zuen  
probako zatirik handiena, eta  
1.08.59ko denbora egin zuen. 4.15  
minutu atera zizkion bigarrenari.  
Mimenzak urtebete inguru  
darama Durango Kirol Taldea-  
gaz. Denbora honetan, besteak  
beste, DKTari taldekako Euska-  
diko maratoni erdian txapelketa  
irabazten lagundu dio, eta Lare-  
doko 10 kilometroak 31 minutu-  
tik behera egin ditu (30.57).

## Ariznabarreta Beran

Oier Ariznabarreta taldeki-  
deak, hirugarren urtez segidan  
irabazi du Berako maratoni er-  
dia: 1.40.16. Lau minututik gora-  
ko aldea atera zion Joxe Amuna-  
rriz bigarrenari. Laster hasiko  
den kilometro bertikalen zirkui-  
tuari aurre egiteko sasoiaren dago  
durangarra.

# Zalduak bost final ditu igoera postuei eusteko

## > ARETO-FUTBOLA

Zaldibarko Zaldia futbol taldea  
Maila Goreneko igoera postue-  
tan dago liga amaitzeko bost  
jardunaldiren faltan. Hiru tal-  
de igoko dira. Ugeraga liderrak  
alde handia du, baina beste bi  
postuetarako hiru hautagai  
daude: San Pedro 56 puntugaz,  
Zaldia 55egaz eta Uritarra  
53gaz. Aurrekoek 10 hartzen  
badute, Gurutzetak ere izan  
dezake zeresanik 49 puntugaz.

Zalduak Begoña taldearen  
kontra jokatu du zapatuan,  
16:30ean. Begoña sailkapena-  
ren erdian galduta dago, eta ez  
du ezer jokoan.

**URTXINTXA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es



# E P O C A

ERREFORMAK - SUKALDEAK  
BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



**%50eko DESKONTUAK**  
**DENDA GUZTIAN ESPOSIZIO ALDAKETAGATIK**  
**EZ GALDU AUKERA!**

• **Zuk nahi duzun etxea egiten lagunduko dizugu** •

Madalenoste, 7  
Tel.: 946 472 012  
epoca@epocasukaldeak.com  
48200 DURANGO Bizkaia

• [www.epocasukaldeak.com](http://www.epocasukaldeak.com) •

jarrai gaitzazu Facebook-en!  
f epoca.goro

San Juan, 5  
Tel.: 943 700 216  
epoca@activahogar.com  
20600 EIBAR Gipuzkoa



# Denboraldian partidu bat bera ere galdu barik, Sasikoa mailaz igo daiteke domeka honetan

Zazpi jokalarik bakarrik osatzen dute taldea, baina fisikoki “ikaragarriak” dira entrenatzailearen arabera



Domekan, Basauriko Soloarteren kantuan berdinketa nahikoa dute mailaz igotzeko. Sasikoa

**> ARETO-FUTBOLA** J.Derteano Espartarrak 300 ziren, eta Sasikoakoak 7 dira. Termopiletako gudu historikoan gertatu zen antzera, kalitatea kantitatea baino baliotsuagoa izaten ari da areto-futbolearen ere. Zazpi bakarrik dira, baina ez edozelakoak. Aurkariak adina edo gehiago dira fisikoki, eta 24 partidutan 103

gol sartu dituzte. Lider daude, eta liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, puntu bakarra falta zaie mailaz igotzeko. Eta hori guztia gutxi balitz, oraindik ez dute porrotik ezagutzen.

Sasikoaren aurtengo ibilbidea ulertzeko gako nagusi bi daude. Alde batetik, talde lana eta fisikoki duten gaitasuna

dago: “Ikaragarriak dira”, dio Gaizka Irigorri entrenatzaileak: “Batuetan aurkariak 12 izanda ere, gu baino nekatuago amaitu dituzte partiduak”. Partidu batzuei bost jokalarigaz bakarrik —aldaketarik barik— aurre egin diete, eta jokalariek atezain lanetan ere aritu izan dira pare bat partidutan.

Bestetik, ligako talderik indartsuenek ez dute iazko mai-larik. Stilo Berrio eta Muskiz taldeei jokalaririk onenak goragoko mailalara joan zaizkie, esaterako, eta iaz goiko postuetan aritu zen Sasikoak, oro har, blokeari eutsi dio.

Horiek horrela, Sasikoaren ibilbideak ez du parekorik Bizkaia mailan. 24 partidutatik 22 irabazi eta bi berdindu dituzte; porrotik ez, orain arte. 1995/96an sortu zuten emakumeen areto-futbol liga, eta Bizkaiko federazioan 2004/05 ligatik gaur egunera arteko datuak dituzte. Azken hamarkadan, GSI Bilbok hirutan, eta, Getxo Kantxa, Stilo Berrio eta Alegria taldeek behin lortu dute denboraldia galdu barik amaitzea. Gero eta gertuago dagoen lorpena dela onartzen du Irigorri, eta taldean komentatzen dela: “Polita litzateke, baina ez gaitu obsesionatzen. Orain igoera dugu buruan, horixe da helburua, eta apurka joan gura dugu. Gero geroakoak”.

## Johanssonek maillot horiagaz agurtu du Bira

Bere azken urtean, bigarren irabazi du Bira

**> TXIRRINDULARITZA** J.Derteano Emma Johanssonek (1983, Suedia) bere ibilbidean bigarren irabazi du Emakumeen Bira. Eta azkeneko ere bai, aurtun erretiroa hartzeko asmoa du eta. Maillot horiaz gain, Eskoziako eta Urkiolako etapa garaipenak ere lortu ditu, 2013an egin zuen antzera.

Ane Santesteban errenteriarra Birako euskaldunik onena izan da, 11. tokian sailkatuta.

Bost segundogatik ez du lortu Top 10ean sartzea. Edozelan ere, goi mailan aritu da. Bizkaia-Durango taldeari dagokionez, Mavi Garciak 17. eta Lourdes Oyarbidek 49. amaitu dute.



## PSE-EEK “errespetua” eskatu dio Ruizi

Bizkaiko Txirrindularitza Federazioko presidentea eta Emakumeen Birako antolatzaitzaileetako den Agustin Ruizek joan zen astean argitaratutako iritzi artikuluaurrean, “erabat haserre” daude sozialistak. Besteak beste, Iurretako etapa amaiera ikusten jende gutxi batzen dela salatu zuen Ruizek. “Iurretarrei buruz esan duen guztia gezurra

da. Egin dezakeen gutxiena bizilagunei barkamena eskatzea da”. Iurretarrak “mespretxatu eta iraintzeari” uzteko eskatu dio Marian Muñoz sozialistak. Gobernu Taldeari “bere bizilagunen duintasuna defendatzeko” eskatu dio.

Agustin Ruizen esanetan, “ez dugu barkamenik eskatuko, eta esan genuen dena berresten dugu”.

### AGENDA

#### > FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

**Durangoko Kulturala - Zalla**  
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

##### MAILA GORENA

**Zaldia - Begoña**  
· Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian.

##### LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

**Zorrontzako - Umore Ona**  
· Zapatuan, 17:30ean, Larrean.

##### LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

**Ezkurdi - Pauldarrak B**  
· Zapatuan, 16:30ean, Arripasuetan.

##### BIGARREN ERREGIONALA

**Iurretako B - Montefuerte**  
· Domekan, 17:00etan, Larrakozelatan.

##### HIRUGARREN ERREGIONALA

**Durangoko Bikainak - Derio B**  
· Zapatuan, 12:30ean, Arripasuetan.

##### Elorrio B - Arratia B

· Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden.

#### > ARETO FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

**Sasikoa - Santurtzi**  
· Domekan, 12:00etan, Landakon.

##### EUSKAL LIGA

**Buskantza B - Muskiz**  
· Zapatuan, 18:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

##### Mallabia Seguros Altaldi - Aretxabaleta

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

##### LEHEN ERREGIONALA

##### Gu Lagunak - Iturriondo

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

##### Elorri Txiki - Usansolo

· Zapatuan, 16:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

##### Presion Break B - Botxo gizon

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

##### BIGARREN ERREGIONALA

##### Mallabia B - Erandiotarrak B

· Domekan, 16:15ean, Zaldibarko kiroldegian

##### Mendibeltz - Elorriko Buskantza

· Zapatuan, 17:45ean, Landakon.

#### > SASKIBALOA

##### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

**Tabirako Baqué - Padura**  
· Zapatuan, 18:00etan, Landakon.

##### LEHEN ERREGIONALA

**Anbotopeko - Txurdinaga**  
· Barikuan, 20:00etan, Jesuitetan.

#### > PILOTA

##### BIHARKO IZARRAK

**- Bakaikoa - Sarasa / E.Labaka-Mateo**  
**- Laso - Mariezkurrena / Larrañaga - Otaduy**  
· Eguenean, 21:15ean, Mallabian.

**HERRIKO DENDETAN EROSIZ**

**ZUK IRABAZTEN DUZU, IURRETAK IRABAZTEN DU**

oparien zozketa hilero

# HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten



**TRAÑA-MATIENA**

**ABADIÑOKO HAURRESKOLA**  
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO  
Tel.: 946 202 166  
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



**ZELAIETA**

**ABADIÑOKO HAURRESKOLA**  
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO  
Tel.: 946 200 672  
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



**ZORNOTZAKO HAURRESKOLA**  
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO  
Tel.: 946 730 346  
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus



**EGUZKILORE**

**BERRIZKO HAURRESKOLA**  
Margarita Maturana, 4 BERRIZ  
Tel.: 946 826 339  
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



**JULENE AZPEITIA**

**DURANGOKO HAURRESKOLA**  
San Roke, 4 - behea DURANGO  
Tel.: 946 203 516  
julene.durango@haurreskolak.eus



**ELORRIKO HAURRESKOLA**  
Goieta, 62 ELORRIO  
Tel.: 946 584 907  
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



**ETORKIZUNA**

**IURRETAKO HAURRESKOLA**  
Olaburu, 5 IURRETA  
Tel.: 946 200 937  
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



**INTXAURTI**

**MALLABIKO HAURRESKOLA**  
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA  
Tel.: 943 172 003  
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



**MAÑARIKO HAURRESKOLA**  
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA  
Tel.: 946 218 308  
manaria.manaria@haurreskolak.eus



**OTXANDIOKO HAURRESKOLA**  
Mainondo, 7A OTXANDIO  
Tel.: 945 450 997  
otxandio.otxandio@haurreskolak.eus



**ZALDUZUBIETA**

**ZALDIBARKO HAURRESKOLA**  
Autonomia, z/g ZALDIBAR  
Tel.: 946 824 497  
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus

**MATRIKULAZIO  
DATAK**  
maiazaren 2tik,  
maiazaren 11ra

## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. - 48200 DURANGO  
Tel.: 946 813 562

### ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- ERROTARITXUENA: atikoa. 3 logela, 2 komun, sukalde-egongela. 2 terraza handiak. Etxe osoa kanpora begira. 4 kotxerentzako garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

#### ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.
- 2 logela, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.

#### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

#### ABADIÑO

- AITA LETONA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Trastelekua eta garajea.
- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

#### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

### LUR SAILAK SALGAI

#### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

#### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

#### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

#### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

#### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

#### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserrí ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailean kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- ATXONDO: Mariza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### SASIKOA



- 90 m2: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. **290.000€.** €

#### FCO. IBARRA: 90 m2



- 3 logela, egongela, sukalde zabala jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. **265.000€.** €

#### TABIRA



- 1. solairua: logela bat, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoia. 2. solairua: logela handia eta komuna. Garajea itxita eta trastelekua. **260.000€.** €

#### ARRILUZEA



- 55 m2 erabilgarri banatuta, sukaldea (guztia jarrita), komuna (osorik), egongela zabala eta logela. 160 m2-ko terraza igerilekuarekin. Kapritxo handikoa. 22 m2-ko garaje itxia. Prezioa **250.000€.** €

#### BERRIZ - GABIOLA: 90 m2



- 3 logela, 27 m2-ko egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, balkoia, garajea eta trastelekua. **240.000€.** €

#### ASK. ETORBIDEA. 286 m2



- Merkataritza lokal ederra. Bi kale tara. Ostalaritzarako prestatua. Alokairua: 2.100 € hilabetea - Salmenta. **499.000€.** €

www.inmoduranguesado.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### SAN IGNACIO



- 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea eta esekitokia. Ganbara. Garajea. HEGOALDEA. Berriztatua. **250.000€.** €

#### ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logela. Hauetako bat terrazarekin. 2 komun. Egongela eta sukaldea terrazarekin. Ganbara eta garajea. EGUZKITSUA. ETXE OSOA KANPORA BEGIRA. **230.000€.**

#### MURUETA TORRE



- 134 m2. 4 logela. 2 komun. Sukalde-jangela. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea bi toki. Eguzkitsua. **300.000€** negoziagarria.

#### KURUTZIAGA



- 80m2. 3 logela. Komuna. Sukalde eta egongela. Balkoia. **130.000€.**

#### F.J.ZUMARRAGA



- 100m2. 4 logela. 2 komun. Sukalde-saloia. Ganbara eta garajea. **236.000€.**

#### IURRETA (k/Maspe)



- 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Eguzkitsua. **111.500€.**

ALOKAIRUA EROSTEOKU AUKERAREKIN  
LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK  
ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.  
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIKUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:  
Tel.: 946 217 902  
publi@anboto.org

# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazieneko 14:00ak arte jasotako iragarkiak berri horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

SALDU

**Durango.** Durangoko Alde Zaharrea etxea salmentan. Duela 7 urte erabat berriztatua. Gas instalazioarekin. Erabat jantzita. Tel.: 659-42 58 90. Posta: [aotxotorena@yahoo.es](mailto:aotxotorena@yahoo.es).

**Iurreta.** Iurretan pisu berria salgai. Estreinatzeke. Oso polita. Tel.: 688-63 08 66.

**Lekeitio.** Lekeitio Alde Zaharrea eta itsasoari begira 3 logelako duplex zoragarria salgai. Tel.: 650-18 33 05.

#### OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

**Oropesa de Mar (Castello).** Oropesa de Marren (Castello) apartamendua alokagai ekainean, uztailean, abuztuan eta irilean. Hondartza aurrean. Inguru pribatua aparkalekuarekin, gune berdearekin eta igerilekuarekin. Tel.: 616-09 04 69/946-20 32 33

**Conil de la frontera (Cadiz).** Etxea alokagai Conilen. Logela bi, egongela-sukaldea, guztiz hornitua. 400 metroko lorategia barbakoarekin. Inguru oso lasaia. Lau laguntzako egokia. Hondartzatik bost minutura kotxean. Atsedean hartzeko ezin hobe. Alokagai dago asteka, hamabostaldia... Tel.: 600-59 65 38.

**Habana (Kuba).** Gela bat alokatzen da habanako hirigunean (Kuba). Tel.: 691-64 67 15.

#### LOKALAK

SALDU

**Lekeitio.** Lekeitio 65 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Alde Zaharrea. Tel.: 650-18 33 05.

#### GARAJE / TRASTEROAK

SALDU

**Durango.** Trastelekua salgai Astepe auzunean (Durango). 18 m<sup>2</sup> eta bi altuera, leihoa eta ate berria. Tel.: 665-70 75 35.

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Askatasun Etorbidean garaje plaza bat alokatzen da. Tel.: 628-84 31 18.

**Elorrio.** Garaje plaza bat alokatzen da Elorrioko Ibarra auzoan. Interesatuek deitu telefono honetara: 689-69 08 89.

### Lana - negozioak

#### LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

**Durangaldea.** Lan bila nabil ostalaritzan eta garbiketan aritzeko. Tel.: 691-64 67 15.

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Kanpoko langilea, asteburuetan eta orduka ere bai. Tel.: 631-30 32 11.

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil umeak edo nagusiak zaintzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka edo asteburuan ere bai. Tel.: 602-01 45 96.

**Durangaldea.** Emakumea lan bila dabil barneko zein kanpoko langile moduan garbiketan, arropa lisatzen, janaria prestatzen eta pertsona nagusiak eta umeak zaintzen jarduteko. Esperientziagaz eta erreferentzia onekin. Tel.: 632-97 59 95.

**Durangaldea.** Neska lan bila dabil barneko zein kanpoko langile moduan pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta erreferentzia onak. Tel.: 646-20 72 71.

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko eta

garbiketan aritzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 722-56 22 41.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Tel.: 632 70 81 59.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pintore, gidari eta nagusien zaintzaile moduan. Tel.: 687-36 20 59 944-07 32 82.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusien zaintzan eta garbiketan. Tel.: 632-16 37 82.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 650-31 97 88.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketan jarduten dut. Tel.: 602-89 01 10.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko langilea. Tel.: 610-80 42 82.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 665-72 37 24.

#### IRAKASKUNTZA

**Abadiño.** Abadiñon klase partikularrak ematen dira. Lehen Hezkuntza eta DBH lehen zikloa. Arratsaldez eta larunbat goizetan. Tel.: 634 44 32 12.

**Otxandio.** Otxandion klase partikularrak ematen dira, Lehen Hezkuntza eta DBH. Asteazkenean, arratsaldez. Tel.: 662-00 14 77.

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Psikologo euskaldunak demenzia eta alzheimerria duten pertsonengan estimulazio kognitiboa eta montessori metodoa eskaintzen du. Familiar eta zaintzaileei ere laguntza psikologikoa eskaintzen zaie. Tel.: 679-38 23 69.

#### LAN ESKAINIZAK

##### PERTSONAK ZAINDU

**Durango.** Durangoko pertsona bati Bilbora trenez joaten laguntzeko pertsona behar da. Eguna: 2016ko apirilaren 14an, osteguna. Iraupena: 1h30 gutxi gorabehera. Tel.: 690-28 60 71 Posta: [elorrizak@yahoo.es](mailto:elorrizak@yahoo.es).

**Durangaldea.** Zaintzailea behar da 10 eta 5 urteko umeak zaintzeko ekainean, 16:15etik 20:30era. Pertsona dinamikoa, atsegina, umezalea, inizatibaduna eta monitore titulua badu, hobe. Tel.: 657-50 96 38.

##### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Mondragon Lingua Hizkuntz Eskolak Gernika-Lumo eta Durangaldea bizi diren ingeles ta aleman irakasleak behar ditu klaseak emateko 2015-16 ta 2016-17 ikasturteetan. Bidali zuen mezua eta geu jarriko gara zuekin harremanetan. [jlandaluze@mondragonlingua.com](mailto:jlandaluze@mondragonlingua.com) [www.mondragonlingua.com](http://www.mondragonlingua.com)

**anboto**  
komunikabideak

**ANBOTO**  
astekariak  
banatzaileak behar  
ditu Zornotzan.

Tel.: 946 816 558  
[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)

#### Denetarik

##### SALDU / EROSI

**Pedaliak gabeko bizikleta (arrosa) eta bizikletarako haur-aulkia salgai.** Gutxi erabilia. Tel.: 665-70 75 35.

**Sango markako denda karroa salgai.** Sango markako denda karroa salgai, lau pertsonentzako. Tel.: 946-03 05 79.

## Elorriko haurreskolan ate irekiak

Elorriko haurreskolan ate irekiak apirilaren 28an eta 29an. 16:00etatik 18:00etara.

Tel.: 946-58 49 07

#### Familia - etxea

##### ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK

SALDU

**Logela baterako armairua salgai.** Elorriko, logela baterako armairua salgai. L formakoa, izkina baterako. Wenge kolorekoa eta laranja koloreko lau kaxoekin. 145x125x241 zm.-ko neurriak. 175 euro. Tel. 665-73 89 46.

**Zanussi hozkailu ia berria.** Zanussi hozkailu ia berria (5 urte) saltzen dut. 150 euro. Tel.: 636-04 63 18.

#### HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

**Ume-kotxea eta osagarriak.** Honako hauek salgai ditut: Casual-play ume-kotxea (kapazua eta aulkia); kotxean erabiltzeko haurrentzako aulkia (0-18 kg); McClaren aulkia; lehen hilabeteetan erabiltzeko haur parkea. Prezio interesgarria. Tel.: 665-70 75 35.

#### GAINERAKOAK

EMAN


**Border collie txakurkume bi ditugu oparitzeko.** Border collie txakurkume bi ditugu oparitzeko. Tel.: 627-86 06 47.

**Txakurkumeak oparitzen dira.** Txakurkumeak erregalaten dira. Ama artzain-txakurra, eta aita erdi artzain-txakurra. Oso politak. Tel.: 617-85 50 69

**anboto.org**  
MUGIKORREAN




Albisteak, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso

**Albisteak eta agenda,** bizkor eta eskura.

**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu,** galderak eginez, erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratzuz.

**DESKARGATU DOAN !**

# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Apirilaren 23an, 22:30ean,**  
Durangoko Plateruenean

## Cobra + Highlights

Durangoko Platerueneko biharkoa da Cobra taldearen apirileko zuzeneko bakarra. Urte hasieran kaleratu duen 'Riffyard' diskoa aurkeztuko du laukoteak. Durangon aritu ostean, Madril, Tolon edo Galizian aritzea dute aurreikusita. Ekain Elorza berriztarra batera-jotzaile daukan Cobra taldearen aurretik, Arrigorriagako Highlights taldearen hard rock doinuek hartuko dute Kafe Antzokia.

### Antzerkia

#### :: DURANGO

APIRILAREN 24an

**19:00etan**, 'El Florido Pensil-niñas', San Agustinen.

#### :: ELORRIO

APIRILAREN 29an

**22:00etan**, 'Amores minúsculos', Arriolan.

#### :: IURRETA

APIRILAREN 22an

**17:00etan**, 'Arratoitxo pinpirinak', Ibarretxen.

#### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 23an

**18:00etan**, 'Martinak bere istorioa aurkitu zueneko', Zornotza Aretoan.

### Erakusketa

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 29ra arte

**Eskarne Zabalaren** lanak, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

MAIATZAREN 1era arte

**Urtzi Cantoren** argazkiak, Arte eta Historia Museoa.

MAIATZAREN 31ra arte

'Anbotoko herejeak', Arte eta Historia Museoa.

#### :: ELORRIO

APIRILAREN 29ra arte

**Paula Quintanillaren** Kubako argazkiak, Iturri kultur etxean.

### Berbaldia

#### :: ELORRIO

APIRILAREN 25ean

**18:00etan**, 'Elorriko eskola publikoan, zein jantoki eredu dugu? Ba al dago hobetzerik?', Uxue Arberen eta Zuriñe Egiaren eskutik, Eskolako aretoan.

MAIATZAREN 2an

**18:00etan**, 'Menopausia, aldaketa besarkatzeko aukera' berbaldia, Bizipoza elkartearen. Izen-ematea, apirilaren 26a baino lehen, 'bizipoza.elkartea@gmail.com'-era idatzita.

#### :: ZADIBAR

APIRILAREN 22an

**19:00etan**, Ahoztar Zelaieta: 'Kutxabank el saqueo de Euskal Herria' berbaldia, Liburutegi Zaharrea.

#### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 24an

**19:00etan**, "Sardinia: askapen soziala eta nazionala uztartzen". Ziztada Gunean.

### Irakurraldia

#### :: DURANGO

APIRILAREN 22an

**18:00etan**, Hitzez eta Ahotsez irakurketa, Plateruenean.

### Dantza

#### :: ELORRIO

APIRILAREN 24an

**Egun osoan zehar**, umeen euskal jaia, plazan.

#### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 29an

**20:00etan**, 'Hazipenen pozak', herriko plazan.

### Kontalaria

#### :: IURRETA

APIRILAREN 29an

**20:00**, 'Amodiozko ipuinak', Maite Arrese eta Mau Ziemkiewickz, Ibarretxen.

### Musika

#### :: DURANGO

APIRILAREN 23an

**22:30ean**, Cobra + Highlights, Plateruenean.

APIRILAREN 28an

**20:00etan**, Kantulagun, Plateruenean.

### Jaiak

#### :: IURRETA (OROMIÑO)

APIRILAREN 24an

**Eguerdian**, Donien Atxa jasotzea eta igel txapelketa.

APIRILAREN 25ean

**12:00etan**, meza. Jarraian, herri bazkaria.

**17:00etan**, briska txapelketa.

APIRILAREN 29an

Mozorro afaria. Jai Batzordean izena eman behar da afarira joateko.

APIRILAREN 30ean

**17:00etan**, Maiztegi herri eskolako umeen dantza erakustaldia eta jolasak.

**Iluntzean**, tortilla txapelketa. Ondoren, Luhartz.

#### MAIATZAREN 1ean

**12:00etan**, meza. Ondoren, Mikel Deuna dantza taldearen emanaldia eta azoka.

**18:00etan**, asto probak eta Donien Atxaren jaitziera.

#### :: MALLABIA (Berano Txiki auzoa)

APIRILAREN 23an

**17:00etan**, Santuari kontuak esan eta jantzi.

**19:00etan**, Donien Atxa altxatzea, eta auzokoentzat afaria.

APIRILAREN 24an

**11:00etan**, meza.

**12:00etan**, lapiko apurtzea eta Gazte Alai dantza taldea.

**13:00etan**, oilar harrapatzea, eta erromeria.

**17:30ean**, Asier Kidamen magia ikuskizuna.

### Omenaldia

#### :: ZALDIBAR (CASTET EGUNA)

APIRILAREN 24an

**10:00etan**, Santamañezarrera ibilaldia, udaletxe plazatik irtenda. **13:00etan**, ekitaldia, Herriko tabernan.

### Zinema

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 22an (22:00etan) eta 24an (19:00etan)

**Mi amor**, Kultur Etxean.

APIRILAREN 27an

**La Danse**, Kultur Etxean.



#### :: DURANGO | ZUGAZA

##### El libro de la selva

• **zapateria 23:** 17:00  
• **domeka 24:** 16:30

##### El libro de la selva 3D

• **zapateria 23:** 17:00  
• **domeka 24:** 16:30

##### Toro

• **barikua 22:** 19:30/22:00  
• **zapateria 23:** 17:00/19:30/22:30  
• **domeka 24:** 16:30/19:00/21:30  
• **astelehena 25:** 18:30/21:00  
• **martitzena 26:** 20:00

##### The lady in the van

• **barikua 22:** 19:30/22:00  
• **zapateria 23:** 19:30/22:30  
• **domeka 24:** 19:00/21:30  
• **astelehena 25:** 18:30/21:00  
• **martitzena 26:** 20:00

##### Race, el heroé de Berlín

• **barikua 22:** 19:30/22:00  
• **zapateria 23:** 19:30/22:30  
• **domeka 24:** 19:00/21:30  
• **astelehena 25:** 18:30/21:00  
• **martitzena 26:** 20:00

##### Lucia Di Lammermoor

• **astelehena 25:** 20:15

#### :: ELORRIO | ARRIOLA

##### El novato

• **zapateria 23:** 22:00  
• **domeka 24:** 20:00  
• **astelehena 25:** 20:00

#### :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

##### Lady in the van

• **zapateria 23:** 20:15  
• **domeka 24:** 22:00  
• **astelehena 25:** 20:00

##### El libro de la selva

• **domeka 24:** 17:00

##### Lucia Di Lammermoor (Roh)

• **astelehena 25:** 20:15

**> ESKELAK**

**Juan José Alonso Cañas**  
Goretta Alonso Armendiaren aita

*Laster arte ezpainetan  
itzi dozuz-ta benetan  
maite zaitueenak penetan*

Anbotoko lankideak

**> BOTIKAK**

**BARIKUA, 22** · 09:00-09:00

**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**ZAPATUA, 23** · 09:00-09:00

**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-13:30

**Etxebarría**  
Montevideo etorb. 2 - Durango

**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango

**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango

**De Diego**  
Intxaurrondo 22 - Durango

**Bazan Diaz** Uribarri 5 - Durango

**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño

**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz

**Larrañaga-Balentiaga**  
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**DOMEKA, 24** · 09:00-09:00

**Etxebarría**  
Montevideo etorb. 2 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 25** · 09:00-09:00

**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**MARTITZENA, 26** · 09:00-09:00

**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**EGUAZTENA, 27** · 09:00-09:00

**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**EGUENA, 28** · 09:00-09:00

**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztieneko 14:00ak arteko epea



**> Zorionak Rafa**  
Matienatik! Ze ondo  
zaintzen zaren!



**> Aimarrek 3 urte bete**  
ebazan apirilaren 19an.  
Zorionak danon partez,  
batez be Anerren partez.



**> Zorionak, Malen!** 6 urte  
etxea argitzen, izartxo.  
Amak, aitak eta Martinek  
infinitu maite zaitugu!



**> Zorionak printzesita**  
urte bete gurekin!  
Musu handi bat **Irati**  
etxekoan partez!



**> Zorionak Irati zure 8.**  
urteegunean. Egun  
ona eta alai pasa.  
Zure gurasoak,  
Endika, Luzia eta  
senideak.



**> Orain dela urte batzuk...**  
elkarrekin ikasi genuenok Lekeition  
batu ginen. Hurrengoa noiz?



Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)

Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren arteantarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

**> EGURALDIA**

ZAPATUA	16° / 9°	
IGANDEA	12° / 6°	
ASTELEHENA	13° / 4°	
ASTEARTEA	14° / 6°	

katerin  
ardoak  
iñaki  
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

[saltsan.com](http://saltsan.com)

Grupo CATALANA  
OCCIDENTE

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango

Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577

posta elektronikoa: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

# “*Trikitia sartu zenean, alboratuta geratu zen alboka*”

Alboka jotzen ikasteko, lehenengo eta behin, arnasa hartzen ikasi behar da, Maskarianok azaldu duenez

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
**Argazki bat ikusi eta albokak egiteko grina sortu zitzaion, duela zortzi urte, Maskarianori. Orduetik, hainbat egin ditu; eta azken urtean konpontzen ere hasi da. Hiru urte dira jotzen ikasten hasi zela.**

**Noiztik albokak egiten? Zer dela-eta albokak?**

Zortzi bat urte izango dira albokak egiten hasi nintzela. Argazki bat ikusi eta neuk ere halako bat egiteko zera hori sortu zitzaidan. Ez nuen alboka ezagutzen: argazkietan ikusita nituen, urrunetik inor jotzen... baina besterik ez. Handik eta hemendik adarrak topatzen hasi nintzen, informazio batzen, eta lehenengo alboka egitea lortu nuen. Egia esan, ez zuen soinu onik. Hala ere, gustua hartu nion, eta hobetzen joan naiz. Etxean daukat.

**Honezkerok, zenbat alboka egin dituzu? Badakizu?**

Ez, ideiarik ere ez. Hemen, etxean, hamabi bat ditut erakusgai. Itziar tabernan ere badago bat. Alboka maisuak konpontzeko batzuk ekarri behar zizkidala-eta, hantxe geratu ginen, tabernan. Proba batzuk egiten ibili ginen, eta taberna-koari ere ikusmina sortu zitzaion. Etxetik bat eroan nion.

**Jotzen ere badakizu, beraz?**

Ikasten ari naiz. Orain dela hiru urte inguru hasi nintzen.

**Albokak egiten hasi eta gero ikasi duzu jotzen, orduan?**

Bai, hala da. Hasieran ez da

erraza jotzea. Alboka jotzeko, lehenengo, arnasa hartzen ikasi egin behar da. Sudurretik arnasa hartu eta gero, bota egin behar da, etengabe. Hor dago gakoa; berez ez dauka konpliazio handirik.

**Birika onak beharko dira... Ez! ikasi egin behar da.**

**Alboka jotzen hasi orduko, instrumentua ondo ezagutzen zenuen.**

Aurretik neure kabuz, solfeo jakin gabe, nota batzuk jotzen nituen. Orain instrumentua jotzen ikasten ari naiz.

**Entseatze-ko, zelan?**

Etxean aritzen naiz. Adarrean papera edo beste zer-bait jarrita, asko bajatzen da soinua.

**Badaude trikimailuak inor ez molestatzeko.**

Bai, baina, egunen batean etxetik bialdu egin-goa naute (barrez).

**Denbora asko behar da alboka bat egiteko?**

Bai, denbora behar da. Adarra mehetu egin behar da, eta nik dena eskuz egiten dut, etxean bertan. Aste bitik gora behar ditut alboka bat egiteko.

**Pazientzia behar da?**

Bai. Astiro-astiro ibili behar da, eta gustura hartu. Adarra larregi mehetuz gero, adibidez, apurtu egiten da. Neuk di-

seinatutako buztarriak erabiltzen ditut, eta kainaberak ebano edo granadondoagaz egiten ditut. Askoz hobea da soinua. Putz egiteko zatia egurragaz edo adar txikiak erabilia egiten dut.

**Asko zarete albokak egiten dituzuenak?**

Bizkaian badaude sei bat. Hemen inguruan ez dut inor ezagutzen.

**Ez da oso ezaguna alboka.**

Ez da asko entzuten. Hala ere, azken urteetan asko zabaldu da. Gazteak ere hasi dira jotzen. Atxondon badira 3-4 lagun alboka jotzen dutenak.

**Albokak badu bere historia, ezta?**

Ardiekin zebiltzan artzainek erabiltzen zuten. Baserri giroko instrumentua da, eta jaietan dantzan egiteko ere jotzen zen. Trikitia sartu zenean, alboratuta geratu zen. Soinu gehiago du trikitiak, eta errazagoa da jotzeko.

**Enkargu asko izaten dituzu?**

Ez, banakaren bat. Neure kapritxorako egiten ditut. Ahoz-ahokoan saltzen ditut, baina, afizio dut eta ez ofizio.

**Baduzu bat kuttunena?**

Jotzeko asmoagaz, ikasteko egin nuen lehenengoa izan daiteke kuttunena; aurretik, bizpahiru nituen eginak. Oparitu egin izan ditut horiek, edo adarren truke eman ere bai.



## LAUHORTZA

MARISA BARRENA



### Intxorta

Aurreko urteetan lez, datorren domekan, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak eta Elgetako Udalak Intxortako Erresistentzia Eguna antolatu dute. Intxorta mendi inguruetako erasoaldi basatiaren aurka gogor borrokatu zirenak izango dituzte gogoan. Programa zabala antolatu dute horretarako elgetarrek.

Aurtengo ekitaldian emakumeek protagonismo berezia izango dute. 40 emakume omenduko dituzte. Kolpe militar faxistaren aurkako borrokan erresistentziako kide izan ziren emakumeak eta honen ondorengo diktaduraren aurkako erresistentzian parte hartzeagatik errepresaliatuak izan zirenak.

Zelanbait, hainbat arlotan emakumeen erresistentzia nolakoa izan zen irudikatzen saiatuko dira; emakume milizianoak, laguntzaile lanean aritu zirenak, erretaguardian erizain lanetan jardun zutenak, lubakiak egiten ibili zirenak, espetxealdia jasan zutenak, fusilatuak, bombardaketetan hil edo zauritu zirenak, erreportariak, erbestera, deportatuak, bortxatuak izan zirenak, ilea moztu zietenak edota, errezino-olioa edanarazi zietenak, besteak beste.

Iñigo Arregiren *Egiaren iturria* izeneko artelana jasoko dute aurtengo omenduek. Omenaldi ekitaldia 13:00etan izango da, Elgetako Frontoian.

Edozein arlotan, zoritxarrez, emakumeen lana zein ahalegina sarri askotan isilean geratzen da, baina jakin badakigu, gerra garaian ere emakumeek egiten duten borroka eta jasotzen duten jazarpena oso gogorra izaten dela behin baino gehiagotan.

Halanda ze, pauso garrantzitsua iruditzen zait elgetarrek emakumeen oroimena, duintasuna eta borroka kontuan hartuz haiei omenaldia egitea.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

